


Euskal kulturaren hitz eta hots guztiak zure esku Durangoko Azokan



Judit Fernandez

Andreu Carranza idazle kataluniarak zabalduko dau 44. Liburu eta Disko Azoka

Ikastolen hasierako urteetako andereñoek jasoko dabe aurtan 'Argizaiola' omen-saria

Ahotsenea guneagaz elkarlana indartu dau aurtan Gerediagak, sortzaileak eta zaleak batzeko

KATALUNIA

Bi kulturen arteko harremana sendotuz

Llull Institutua • Katalunia da aurtengo Azokako herrialde gonbidatua. Kultura katalanaren inguruan, hainbat ekitaldi antolatu ditue Durangoko Azokako egunetarako. Ramón Llull Institutua ohorezko gonbidatua denez, inaugurazino ekitaldian parte hartuko dau.

6

HAUR LITERATURA

Literaturarako grina txiki-txikitatik piztuz

Berbaro • Landakogunearen aldameneko eraikina abenduaren 5etik 8a arte beteko dau Haur Literatur Aretoaren XX. edizinorako Durangoko Berbaro euskara elkarteak prestatu dauen programazinoak.

8-9

EUSKAL DENDA

Unzueta: 75 urteko ibilbideari omen

Arbaso • Juan Unzuetak jasoko dau *Artetsu* sarietako bat. 85 urte bete barri, horreetako 75 artisautzari eskaini deutzaz. Euskal Dendak Katalunia eta Galiziako artisautzaren barri be emongo dau aurtan.

15-18

EGIARRAUA

ABENDUAK 4

- 11:00 Break-bertso-hip hop saioa, Elkartegian.
- 11:00 **El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). Una apuesta por la diversidad lingüística** (Euskaltzaindia), aurkezpen aretoan. Miquel Gros I Lladós.
- 11:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen aurkezpena: **Piratak** DVDa, **Ane Pirata** (ipuina) eta **Irrien Lagunak** CDa (Katxiporreta pailazoak), aurkezpen aretoan.
- 12:30 **Observatorio de la ilustración-Informe 2008** (FADIP), aurkezpen aretoan. E. Odriozola eta D. Maiz.
- 13:00 **Bilbao. Desarrollos urbanos 1960-2000. Ciudad y forma** (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Nagusia, Bilboko Udala eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala), aurkezpen aretoan. J. Martínez Callejo.
- 13:30 **Orkestra** (Deustuko Unibertsitatea) bilduma, aurkezpen aretoan. B. Aldazabal. **Seaskak 40 urte euskararen alde** (Seaska ikastola), 16:00etan. H. Gorostiaga.
- 17:30 **Denboraren naufrago** (Elkar) diskoa, aurkezpen aretoan. X. Aburrizaga. **Munduaren bira** (Somuga) filma, 19:30etan. A. Urmeneta, J. Elordi.
- 19:00 Inaugurazio ekitaldia: **Katalunia, birtualtasunaren sorteri** Andreu Carranzaren eskutik, Elkartegian.
- 21:30 **Mirant al Cel** filma, San Agustin kulturgunean. Jesús Garay (zuzendariak) eta Fermin Muguruzak (soinua) parte hartuko dabe.

ABENDUAK 5

- 11:00 / 20:00 'Ahotsenea': Igor Estankona, Pirritx eta Porrotx, Yolanda Arrieta, Aitziber Alonso, Leire Urbeltz, Iker Goenaga, Euskal poesia erotikoren antologia, Karmele Igartua, Hedoí Etxarte eta Alain M. Urrutia, Bide Ertzean, Unai Elorriaga.
- 11:00 **Hiru otso** (Ikas), aurkezpen aretoan. A. Ennebutte-Maillard, A. Dufau.
- 11:30 Circ Bover kaleko zirkua, Andra Marian; 18:30etan be bai.
- 11:30 **Jin bezala, Ahizpa zoiz zira eta Uzkinazo luma** (Maiatz), aurkezpen aretoan. M. Thikoipe, M. Legorburu, P. Jorajuria.
- 12:00 **Tailerreko eskuliburu tekniko** (Danobat eta Mondragon Unibertsitatea), aurkezpen aretoan. L. Alkorta.
- 12:30 **Euskara ikasteko, garuna trebatzeko edo hezteko bideo-jolasak** (Ametsa soft), aurkezpen aretoan. Y. Charte, I. Gorrotxategi.
- 12:30 **Berbaldia**: Jason Epstein, Elkartegian.
- 13:10 **Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren online salmenta sistema** (Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saila), aurkezpen aretoan. Idoia Mendia kontseilaria. **Hasta aquí hemos llegado-Claves para entender el hartazgo de Catalunya con España** (Ttartalo), 13:30etan. T. Strubleel I Trueta.
- 15:00 **Xabaltx eta Albaren irudiak** (Maiatz), aurkezpen aretoan. Xabaltx eta P. Sastre eta L. Etxezarreta.
- 15:30 **Olatu bat kuartelen gainetik** (Lanku), aurkezpen aretoan. X. Amuriza.
- 16:00 **Iturraldea eta Iraupenean etorkizuna** (Euskaltzaindia Biltzarra-EGAN), aurkezpen aretoan. J. Etxepare gaztea.
- 16:30 **Traducción de la parte alemana de la Euskera vascónica** (Egile), aurkezpen aretoan. T. Vennemann-M. Salterain.
- 17:30 **Katramila. Goizetik gauerako abesti-jolasak** (Bizkaiko Urtxintxa Eskola) CD-liburua, aurkezpen aretoan. A. Olabarri.
- 18:00 **M'C Txirrita** (Lanku) dokumentala, aurkezpen aretoan. X. Silveira.
- 18:30 Poesia saioa: Joan Margarit, Itxaro Borda, Leire Bilbao, Elkartegian. Aurkezlea J. R. Makuso.

- 18:30 **ENA 12 urte EH eraikitzen** (ENA), aurkezpen aretoan. U. Ihitza. **Marina Suredaren amets urratuak** (Erein), 19:00etan. J. Belmonte.
- 20:30 IX. Gauean Argi ekitaldia: Ikastolen hasierako andereñoie emongo deuse 2009 Durangoko Argizaiola omen-saria, San Agustin kulturgunean: Izaskun Arrue (Araba), Libe Goñi (Iparralde), Izaskun Gastesi (Nafarroa), Karmele Esnal (Gipuzkoa), Begoña Aranguren (Bizkaia).

ABENDUAK 6

- 10:00 / 20:00 'Ahotsenea': Edorta Jimenez, Mikel Urdangarin, SKT, Juanra Madariaga, Rafa Rueda, Gose, Xabier Amuriza, Siroka + Zein da Zein?, Etxe, Iñaki Plaza + Ion Garmendia, J. R. Makuso, Anger.
- 11:00 **Txalaparta** (Nerea), aurkezpen aretoan. J. M. Beltran egilea; eta, C. Gorostegi (Ttakun), J. Bagües (Eresbil) eta M. Casares (Nerea).
- 12:00 **Haizekadak** (Mendebala jaialdia) diskoa, aurkezpen aretoan. Adarots folk taldea. **Hainbeste, hain gutxi** (Lanku) CDa, 12:30etan. J. Enbeita.
- 13:00 **Mintza hadi lagun** (Mara mara), aurkezpen aretoan. R. Lizartza.
- 13:30 Liburu digitalak (Alberdania), aurkezpen aretoan. J. Giménez.
- 14:00 **Komuneko paperean** (I. Epelde- Garoa liburudenda, Ithaka Design eta 27zapata), aurkezpen aretoan. I. Agirre, G. Iruretagoiena.
- 15:30 **Erraldoi Xuria eta Abereen oihuak eta zurrumuruak** (S. Mounier-Hartzea Lopez/Marue-Hélène Martens-Gatzuzain), aurkezpen aretoan. **Vitoria. Asedio al Reino de Navarra eta Navarra. Castillos que defendieron el reino** (P. Gerra-Astero/I. Sagredo-Pamiela), 16:30etan.
- 17:00 **Ospela** (Elkar) diskoa, aurkezpen aretoan. X. San Sebastian.
- 18:00 **Xahamaran** (Erein), aurkezpen aretoan. J. Arretxe.
- 18:30 Euskal eta katalan musikari errepaso historikoa Marc Biosca eta Joseba Martin **La Jungla sonora** saioko kideagaz, Elkartegian.
- 18:30 **Bilboaldea osoki euskalduntzeko plangintza eragilea** (Lemuria), aurkezpen aretoan. U. Ihitza.
- 19:30 **Izar uxu** (Elkar) diskoa, aurkezpen aretoan. J. M. Lopetegi.

ABENDUAK 7

- 10:00 / 20:00 'Ahotsenea': Ken Zazpi, Uxue Alberdi, Berri Txarrak, Oier Guillan, Josu Bergara, Xabi San Sebastian, Xabi Borda, Mamba Beat, Karmele Jaio, Piztiak.
- 11:00 Azkue Fundazioa, aurkezpen aretoan. R. Gartzia Azurmendi.
- 12:00 **Haiek zergaitik deitzen diote Euskal Herria eta guk Ithaka?** (Alberdania), aurkezpen aretoan. J. Giménez, I. Mujika.
- 12:30 Liburu digitala berbagai: **Liburua unibertso digitalean** (J. M. Torrealdei), **Edukiak paperaz haraindi** (A. Sagarna), **Liburu elektronikoa eta editorea. Edizio eredu berri baterantz?** (J. Jiménez) eta **Edi.cat. liburu digitalaren esperientzia** (E. Faura), Elkartegian.
- 12:30 **Goi mailako on line ikastaroak** (Mara mara), aurkezpen aretoan. R. Lizartza, N. Galartza.
- 13:00 **Euskadi: crónica de una desesperanza** (Alianza), aurkezpen aretoan. Antoni Segura. **Mongo** (Rock Izar) diskoa, 18:00etan. X. Elias "Mongo".
- 18:30 Barrietaldia: Kirmen Uribe eta Albert Sanchez Piñol, Elkartegian. Moderatzailea: G. Landabaso.
- 21:00 Kontzertua: Gerard Quintana eta Jabier Muguruza, Elkartegian.

ABENDUAK 8

- 11:00 Puntueus eta Puntucat proiektuen aurrekariak eta gaurkotasuna, Elkartegian. Aurkezpen aretoan, 'Tokikom', tokiko hedabideen marka bateratua eta agregatzailea. Topagunea.
- 11:30 **Iraun** (Maiatz), aurkezpen aretoan. Marikita Tambourin. **Nola hitz egin arteaz umeei** (F. Barbe-Gall-Nerea), 12:30etan. M. Casares.

PLATERUENA

Durangoko
Kafe Antzokia

Abenduak 4

22:00 Betagarri:
Bizitzari txistuka
diskoaren aurkezpena.

Abenduak 5

22:00 Des-Kontrol:
Aurrera begira
diskoaren aurkezpena.

Abenduak 6

22:00 Mikel Urdangarin:
Zubia
diskoaren aurkezpena.

Abenduak 7

22:00 Berri Txarrak:
Payola - diskoaren aurkezpena.
SARRERAK AGORTUTA!

Abenduak 8

13:00 Joseba Jaka VIII. Herri Lasterketako sari banaketa

Ipar Euskal Herriko Ekoizpenak
13:30 Jean Mixel Bedaxagar.
14:00 Pil Pilean (Jojo Bordegarai).
16:00 Amaia Riousepyrous.
17:00 Xabaltx



kokapena

STAND	KALEA	STAND	STAND	KALEA	STAND	STAND	KALEA	STAND
ABARKA	Artekale	79-81	ELKAR	Goienkale	67-80	KLASIKOAK	Barrenkale	58-60
AEK-AIZUL	Barrenkale	3	ENA	Artekale	48	KUTXA FUNDAZIOA	Artekale	19-20
AFEDE	Goienkale	4-5	ENTZUN!	Barrenkale	66	LA GALLINA VASCA	Barrenkale	63
AGORILA	Artekale	64	EREIN	Goienkale	15-20	LABAYRU IKASTEGIA	Artekale	8-9
AISE LIBURUAK	Goienkale	41-44	EROSKI	Artekale	106-107	LANKU -BERTSO ZERBITZUAK	Artekale	28
AIZKORRI ARGIALETXEA	Goienkale	95	ERRABAL JAZZ	Barrenkale	48	LEER	Artekale	58
ALBERDANIA	Goienkale	23-28	ETOR-OSTOA	Artekale	66-67	LEMURIA-ESTATURANTZAKO NAZIOAK	Barrenkale	61
ALTAFFAYLLA-ARABERA	Goienkale	45	.EUS:EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA			LUDITOYS	Goienkale	1
AMEDISK	Barrenkale	14	INTERNETEN	Artekale	52	LLULL INSTITUTUA	Sarreran	
ARABAKO FORU ALDUNDIA	Artekale	94	EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA	Artekale	30	MAIATZ	Artekale	62
ARANTZAZU EDIZIO FRANTZISKOTARRAK	Artekale	16	EUSKAL HERRIA ALDIZKARIA	Goienkale	46-47	MAMARA TALDEA	Artekale	72
ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA	Artekale	7	EUSKAL HERRIA SOZIALISTA	Barrenkale	10	MEETOK	Goienkale	62
ARGIA	Barrenkale	1	EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ	Barrenkale	2	MENDEBALA DISKAK	Artekale	31
ARTEZ - EUSKAL PAPERGINTZA	Artekale	35-37	EUSKAL HERRIKO MUSIKA			MENDEBALDE KULTURA ELKARTEA		
ASKAPENA	Barrenkale	13	ESKOLEN ELKARTEA	Artekale	33	ADOREZ HIZTEGIAK XXI, S.L.	Artekale	3
ATARAMI□E	Barrenkale	11	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	Artekale	91-92	METAK-ESAN OZENKI	Barrenkale	44
ATXEH INDEPENDENT RECORDS	Barrenkale	31	EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK	Artekale	49	MONDRAGON UNIBERTSITATEA	Artekale	87
AUNIA- NONDIK	Barrenkale	69	EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK	Goienkale	99-106	MUSIKHERRIA	Barrenkale	56
AZKUE FUNDAZIOA	Artekale	45-47	EUSKALEMA	Artekale	34	NABARRA	Barrenkale	68
BABELMUSIK MUSIKAZ BETE MUNDUA!	Barrenkale	18	EUSKALTZAINDIA	Artekale	1-2	NABARRALDE	Goienkale	30
BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA	Artekale	10-11	EUSKO IKASKUNTZA	Artekale	14-15	OIHUKA	Barrenkale	45-46
BAGA-BIGA	Barrenkale	37-38	EUSKO LEGBILTZARRA	Artekale	13	PAMIELA	Goienkale	55-60
BARTON FILMS	Artekale	71	EUSKO JAURLARITZA	Artekale	101-104	PAMIELA-UDALBIDE-EKE	Goienkale	53-54
BASSARAI	Goienkale	29	EVEREST	Goienkale	94	PIRRITX PORROTX ETA MARI MOTOTS	Goienkale	42
BBK FUNDAZIOA	Artekale	108-109	GAIK - BASANDERE	Artekale	82-83	POXPOLO ETA MOKOLO	Barrenkale	39
BERRIA	Barrenkale	5-6	GAKOA	Artekale	68	PRESOEN LAGUNAK	Barrenkale	12
BERTSOLARI ALDIZKARIA	Goienkale	6	GARA	Barrenkale	8-9	SABINO ARANA FUNDAZIOA	Artekale	4-5
BERTSOZALE ELKARTEA	Artekale	27	GATUZAIN	Artekale	65	SAURE	Goienkale	84-85
BIDEHUTS	Barrenkale	30	GAZTELUPEKO HOTSAK	Barrenkale	49-51	SOFTKIN INFORMATIKA	Artekale	53
BIDJOLASAK-AMETSA SOFT	Goienkale	3	GAZTERIAREN KONTSEILUA (EGK)	Artekale	73	SORTZEN-IKASBATUAZ ELKARTEA	Goienkale	82
BILBOKO UDALA	Artekale	12	GAZTESAREA	Barrenkale	52-53	SUA EDIZIOAK	Goienkale	50-52
BITARTE	Artekale	61	GAZTEZULO	Barrenkale	67	SUSA-LITERATURA	Goienkale	65-66
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Artekale	98-100	GEREDIAGA ELKARTEA	Artekale	111	SU TA GAR	Barrenkale	17
BIZKAIKO MUSEOAK	Artekale	6	GERO-MENSAJERO	Goienkale	21-22	TALKA	Barrenkale	29
BRIAN'S RECORDS	Barrenkale	36	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Artekale	96-97	THE BALDE	Barrenkale	65
BRIXTON RECORDS	Barrenkale	43	GITE-IPES/ AHAZTUAK 37-77/			TINKO	Goienkale	2
CASA CRISTIANA EMANUEL	Artekale	70	BILGUNE FEMINISTA	Barrenkale	62	TMEO	Barrenkale	64
DDT DISKAK GATAZKA GUNEA	Barrenkale	57	GOR DISKAK	Barrenkale	32-35	TOPAGUNEA EUSKARA		
DESL□E	Goienkale	96-97	GURE LIBURUAK	Goienkale	39	ELKARTEEN FEDERAZIOA	Barrenkale	72
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA	Artekale	89-90	H.A.B.E	Artekale	50-51	TRAVEL BUG	Goienkale	63-64
DURANGALDEKO ARGITALPENAK	Artekale	110	HAMAIIKA TELEBISTA	Artekale	56-57	TRIKITIXA ELKARTEA	Artekale	29
DURANGOKO TURISMO BULEGOA	Sarreran		HEMEN-KARMEL	Artekale	18	TTARTTALO	Goienkale	86-93
DURANGOKO UDALA	Artekale	105	HIK HASI	Goienkale	98	TXALAPARTA	Goienkale	31-38
EGUZKI BIDEOAK	Barrenkale	54-55	HIRI RECORDS	Barrenkale	15	TXAPEL GAMES	Artekale	54-55
EHAEO/COAVN COLEGIO DE ARQUITECTOS			HITZA	Barrenkale	4	TXERTOA	Artekale	77-78
VASCO NAVARRO. DELEGACI□N EN BIZKAIA	Artekale	86	IBAIZABAL	Goienkale	7-14	TXISTULARI ELKARTEA	Artekale	32
EKIN	Goienkale	40	IDATZ	Artekale	17	UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA	Artekale	88
EL MUNDO DE LOS PIRINEOS	Goienkale	48-49	IGELA	Goienkale	61	UNIVERSITY OF NEVADA PRESS	Artekale	93
ELHUYAR FUNDAZIOA	Artekale	43-44	IKA	Barrenkale	71	URTIXINTXA ESKOLA-BIZKAIA	Goienkale	83
ELHUYAR FUNDAZIOA	Artekale	59-60	IKAS-ZTK-EUSKALZALEEN BILTZARRA-	Artekale	63	URTIXINTXA ESKOLA GIPUZKOA	Goienkale	81
ELKAR AZOKAK	Artekale	74-76	JAKIN	Artekale	24	UTRIUSQUE VASCONIAE, EUSKAL		
ELKAR BANAKETA	Artekale	21-23	J.K. IRIZAR	Barrenkale	40	PENTSAMENDUAREN ARGIALETXEA	Artekale	69
ELKAR BANAKETA	Artekale	38-42	KAP PRODUKZIOAK	Barrenkale	16	ZAZPI HAIZETARA	Barrenkale	7
ELKAR BANAKETA	Barrenkale	19-20	KATXIPOPETA	Barrenkale	41	ZENBAT GARA ELKARTEA	Barrenkale	70
ELKAR	Artekale	25-26	KEN ZAZPI	Barrenkale	47	ZUTOIA	Artekale	84-85
ELKAR	Barrenkale	21-28	KIROLA EUSKARAZ PROGRAMA	Artekale	95			

APAINGARRI ETA INDUSTRIALA

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944
Ibai Urien Madrazo

- Fatxadetarako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

ORAIN DURANGON ERE BAI

Osasuntek
KLINIKA ETA KIRURGIA OPTALMOLOGIKOA

Jauregui medikua Etxeandia medikua

- Kataraktaren kirurgia
- Lagin kirurgia eta Argi Berria
- Retinaren kirurgia, despresioak eta higidura
- Glaukoma kirurgia, zuzentzea
- Begiaren kirurgia (entzumen kontrola)
- Diabetearen kontrola
- Hazi artifizialak
- Oftalmologia erretina

Zumalakarregi kalea, 18 (Solairu artekoa) Durango • Tel.: 94 655 09 43

Hemen agertu gura badozu

deitu!

94 621 79 02

Kulturaren ateak zabalik

Zabaldu ditu ateak 44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak. Martitzenera arte, euskal kulturaren topagune izango da, produktu, aurkezpen eta ekitaldi josirik. Kataluniako kultura ezagutzeko aukera be emongo dau Azokak.



Judit Fernandez

A benduko zubiagaz batera, badator aurten be Durangoko Azoka. Saltoki, baina, batez be, elkargune: idazle eta irakurle, musikari eta entzule, lagun eta ezagun, bertako eta kanpoko... Edizino honetan, euskal kultura Kataluniakoagaz elkartzeko saiakera egingo dabe; horixe da gaia, eta Ramon Llull Institutua ohorezko gonbidatua.

Hain zuzen be, Andreu Carranza idazle katalanaren berbaldiak zabalduko dau Azoka ofizialki, gaur, 19:00etan. Gainera, hango sortzaileek leku berezia izango dabe egitarauan.

292 stand atondu ditue Barrenkale, Artekale eta Goienkale izeneko kaleetan; aurten 14 eskari barri egon dira. Erakusmahai horreetatik 279 arruntak izango dira, eta gainerakak teknologia barriei jagokezenak. Produktuen kasuan, 459 nobedade izango dira; gehienak, 308, liburuak direlarik.

Jakina denez, Durangaldeko Adiskideen Gerediaga Elkarteak da Azokaren bultzatzaile eta antolatzailea. Kultur ondarearen babes eta zabalkundea helburu izanda, dagoeneko 44. edizinoa dau Azokak, eta hasierako urteetatik gaurdainoko ibilbidean hainbat moldaketa edo barrikuntza izan dira. 1992an *Argizaiola* omen-saria banatzen hasi zen Gerediaga, beste sasoi batzuetan "gaue argi" izan zirenek egindako lana gorapatzeko. Ikastolen hasta-

penetan andereno izandakoek jasoko dabe omena.

Zabalpena

Azokaren ibilbide historikoan zabalpena izan da beste elementu garrantzitsu bat: Azoka hutsa baino gehiago da, dudarik barik. Horren adierazle dira Aurkezpen Aretoa, Haur Literatur Aretoa eta Ahotsenea proiektua, esate baterako.

Aurkezpen Aretoan, Pirritx eta Porrotx, Jon Enbeita bakarlarria eta Jon Arretxe idazlea izango dira, besteak beste. Haur Literatur Aretoan eskulanak, ikuskizunak, bideo emanaldiak eta irakurketa libre antolatuko dira, aurkezpenez gainera. Txikienen gozagarri, han ariko dira Alaitz Muro, Agurtzane Villate, Miren Agur Meabe, Toti Martinez de Lezea...

Ahotsenea proiektua joan zen urtean jaio zen sortzaileen

Lur Merinok egindako kartelak emongo deutso irudia Landakori

eskutik. Dozenaka artista pasatuko da eraikin nagusiaren ondoren egokitu daben karpatik: Unai Elorriaga, Ken7, Rafa Rueda...

Bestalde, ezin ahaztu Elkartegian be makina bat hitzaldi egingo dela: adibidez, Puntueus eta Puntucat proiektuen egoera aztertuko da hilaren 8an; euskal kultura katalanagaz lotuz saio bat baino gehiago eskainiko da, eta internetek liburuaren industrian daukan eraginaz hitz egingo dabe adituek.

Hau guztia, pantaila erraldoi batean ikusi ahal izango da, Azoka TB proiektu barriari esker. ETB3, Hamaika eta Goienaren eskutik, ekitaldien irudiak bis-taratuko dira bertan.

Goizeko 10:30ean zabaldu eta 20:00etan itxiko dira egunero ateak. Ongi etorria eginez, Lur Merino bilbotarrak diseinatutako kartela agertuko da Landakon, kultura hotzetik epele- ra dakarren eraikinean.

459 nobedade izango dira, 292 erakusmahaitan banatuta

Euskal kultura Kataluniakoagaz elkartzeko saiakera egingo dabe aurten



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz • Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua • Karta • Domeka, astelehena eta martitzen gauetan itxita.



Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA EZ DA UMEEN JOLASA

- TIC aholkularitza
- Ekipamendu hornikuntza
- Konfigurazioa eta instalazioa
- Mantenimendua
- Formazioa
- Etengabeko hobekuntza

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es • Tel.: 94 640 98 98

ALMACENES ARRASATE



Kataide Industrigunea, pab. 3
20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52-77 00 34
Faxa: 943 77 13 13

ORAIN DURANGON!

Intxaurrondo, 12 behea
48200 Durango
Tel./Faxa: 94 681 34 85



 2 1200 b/min 7 Kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA F-2712 FAGOR 420 -105 315 € (Remove plana)	 2 1000 b/min 6 Kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA 3F-1610 FAGOR 335 -105 230 € (Remove plana)	 2 1000 b/min 5 Kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA ALF-110 SAMSUNG 280 -105 175 € (Remove plana)	 2 185 x 60 x 60 A Salkapen energetikoa HOZKAILUA DREAM G-185 CULDES 490 -85 405 € (Remove plana)	 144 x 55 x 60 A Salkapen energetikoa HOZKAILUA AFD-145 SAMSUNG 295 -85 210 € (Remove plana)	
 2 TELEBISTA TX-L32X10Y LCD 32" Panasonic 495 €	 2 TELEBISTA TX-P42X10Y PLASMA 42" Panasonic 635 €	 2 TELEBISTA UE40B7020 LED 40" SAMSUNG 1.190 €	 A Salkapen energetikoa INDUKZIOA IF-3S/X FAGOR 475 €	 A Salkapen energetikoa LABEA ETA BITROZERAMIKA SAMSUNG 360 -75 285 € (Remove plana)	REMOVE PLANA GARBIGAILUAK ONTZI-GARBIGAILUAK HOZKAILUAK IZOZKAILUAK A -85 € A+ -105 € LABEAK -75 €

Europar Batasunaren Auzitegiak ezarritako erabileraren arabera, A+++ 70%, A++ 45%, A+ 30%, A 20%, B 10%.

Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
 Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
 Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoari 3, Roneo ondoan.



Katalanez ikasten Azoka egunetan

Kultura katalana da aurten Azokako gonbidatua. Ramón Lluill Institutuak urteak daroaz katalanez sortutakoa mundu zabalean ezagutzera emoten. Erakunde horretako ordezkariak Durangon izango doguz egunotan antolatutako ekitaldietan parte hartzen.

Katalanak protagonismo handia izango dau aurtengo Liburu eta Disko Azokan. Katalunia da aurten herrialde gonbidatua, beraz, hizkuntza horretan sortzen diren adierazpen kulturalen erakusleho izango dogu Azoka. Gerediaga elkarteak azaldu daueenez, Kataluniako kulturagaz hartu-emona "sendotzea" dabe helburu. Jesus Garay zuzendariak sortutako *Mirant al Cel* dokumentalaren proiektinoa eta Gerard Quintana eta Javier Muguruzaren kontzertua dira Azokan ezagutuko doguzen Kataluniako kulturaren zertzeladetako batzuk.

Kataluniako eta Balear Irltako Gobernuak sortutako partzuergoaren helburua hizkuntza eta kultura katalanaren nazinoarteko zabalkundea indartzea da. Beraz, antolatzen ditueen ekitaldi denak euren lurraldetik kanpora jartzen ditue martxan. Bartzelonako eta Palmako egoi-

Kultura katalanagaz hartu-emona sendotu gura dau Gerediaga Elkarteak

tza banatan, 60 beharginek dihardue lanean. Gainera, arduradun bat daukie Kataluniako Gobernuak Frantzian, Alemanian, Ingalaterran eta AEBetan dituen bulegoetan. Atzerriko unibertsitateetan banatuta 120 irakasle inguru ditue eskolak emoten.

Institutuak hiru esparrutan dihardu. Sorkuntza arloan, lanak nazinoarteko eszenan programatzen ditue. New Yorken *Catalan Days* antolatzen dabe egitarauan hainbat ekitaldi leku eginez.

Hizkuntza eta kultura katalanaren ezagutza zabaltzeko hizkuntza eta unibertsitate arloan eragin gura dabe.

Literatura eta pentsamendu arloan, literatura katalanaren itzulpen gintza eta promozino indartzea dabe jomuga.

Durango ez da Ramón Lluill Institutuaren bidaia agendako geraleku bakarra. Parisko *Marché de la Poésie* be gonbidatu ditue. Institutua, entitate juridikoa daukan nazinoarteko Ramón Lluill Fundazioaren motorra da.

"Ohore handia da Azokara gonbidatzea"



Ramón Lluill Institutuko zuzendari Josep Bargalló igaz ezagutu eban lehenengoz Azoka. Aurten, baina, ohorezko gonbidatu legez dator Durangora.

Azokaren gonbidapena zelan jaso dozue?

Ohore handia da guretzat Durangoko zita garrantzitsu honetan parte hartzea. Literatura katalanak, beste guztiek legez, erakuslehoak behar ditu ondoan. Aukera paregabea da bi kulturen arteko hartu-emo-

nak estu eta hain dinamikoak diren bi kulturei bide emateko.

Gerediaga Elkarteagaz badaukazue loturarik?

Gure herrietako hizkuntzaren eta kulturaren alde egiten dogu biok lan. Ekimen askotan hartzen dogu parte bi erakundeok, beti be, gure ondarearen zabalkundea ardatz hartuta. Bereizten gaituen ezaugarria izan leiteke Ramón Lluill Institutuak atzerrian ezagutarazteko lan egiten dauela.

Zertan diharduzue?

Munduko 160 unibertsitateagaz hartu-emon iraunkorra dauka. Milatik gora ekitalditan parte hartzen dogu urtero. Parisko Expolangues Azokan par-

te hartzeko apustua da hurrengo erronka.

Zure eritziz euskal kulturak zelako presentzia dauka Katalunian?

Askok pentsatu leikena baino nabarmenagoa, baina, beti be, egoera normalizatu batean izan beharko leikena baino eskasagoa.

Zelako itxura hartuko dau Durangok Kataluniako kulturaz jantzita?

Denetarik forma eta koloreak ekarriko doguz bertara, beraz, anitza izango da. Literatura eta diskogintzaz gainera, zenbait ikuskizun, antzerki eta animazio gozagarri izango dira.

Ramón Lluill Institutuko ordezkariak Azokako ohorezko gonbidatu


Ramón Lluill Institutua
Ramón Lluill Institutua Azokako ohorezko gonbidatua izango denez, institutuko ordezkariak bertan parte hartuko dabe.



**DURANGOKO
EUSKAL LIBURU
ETA DISKO AZOKA
2009ko Abenduaren 4tik 8ra**

Literaturaren alde gaude, musikaren alde.
Ezagutza bultzatzen dutenen alde gaude,
unibertsoak sortzen dituztenen alde,
hitza guztion gune bihurtzen dutenen alde.

Kulturaz mintzo garenean,
guztion mintzaira baitarabilgu.



Entzuten zaitugu
www.eroski.es/compromisos
902 540 340



zurekin

Berbaro haur eta gaztetxoekin



Durangoan Berbaro euskara elkarteak sortu zela bi hamarkada bete dira aurten, eta 20 urte dira, Gerediaga elkarteagaz bat eginda, Liburu eta Disko Azokako egunetan Berbaro Haur Literatur Aretoa kudeatzen hasi zela be. Literaturaren eta musikaren etorkizuna diren haur eta gaztetxoekin Azokako gune propioa da Haur Literatur Aretoa.

leen euren ahotiko aurkezpenak be izango dira, zabalik dagoen egun guztietan, Haur Literatur Aretoan. Ipuin kontaketa saioak, antzezlanak eta karaokea be egingo ditue.

Gainerakoan, literaturagazn eta musikagaz lotura daukien bestelako ekintzak be burutuko ditue Haur Literatura Aretoaren babesean: Azokak irauten dauen egunetan izango dira eskulanak egiteko tailerrak be: txapak, orri markatzaileak, agendak eta arkatzak gordetze-ko poteak egiten ikasiko dabe besteak beste hurrek.

Durangoako Liburu eta Disko Azoka ikasleek hartzen duten egunean, bost egunetik lehenengoan, gaur, eskoletako haurrentzako prestatutako ginkana bategaz murgildu da Haur Literatur Aretoa antolatzen dauen Berbaro euskara elkarteak Azokan.

Abenduaren 5etik 8ra arteko egunetan, baina, Berbarok kudeatzen dauen haur eta gaztetxoekin txokoa izango da arreta guztia bereganatuko dauna: Haur Literatur Aretoa zabalduko dabe abenduaren 5ean, eta 44. Liburu eta Disko Azokagaz batera egingo dau bidea.

Durangoako Berbaro euskara elkarteak sortu zela bi hamarkada bete diren urte berean, hogeitau urte ospatzen dira aurten Durangoako Liburu eta Disko Azoka antolatzen dauen Gerediaga elkarteagaz bat eginda Haur Literatura Aretoa antolatzen dauela Berbarok.

Hurrek Durangoako liburu eta diskoen artean euren espazio propioa izateko helburuagaz ipini eban Berbaro euskara elkarteak orain 20 urte Lite-

Abenduaren 5etik
8a arte, goiz eta
arratsalderako
programazioa

Liburu eta diskoen
artean hurrek be
euren espazioa izan
zeien sortu eben

ratur Aretoa martxan. Hasieran espazio urria zeukien Azokako txikienek, baina leku egokiagoa daukie urteek aurrera egin ahal; literaturari buruzko programazio bereziz betea.

Berbarok kudeatzen dituen ekintzen bitartez, hurrek euskaraz irakurtzeko gogoia piztea eta musikara gerturatzea da Haur Literatur Aretoaren izateko arrazoi nagusia.

Abenduaren 5ean hasi eta 8a arte, goiz eta arratsalderako haurrentzako bereziki prestatutako programazio zabala izango da Landakogunearen aldamenean egokitu daben gunean. Irakurketa librerako denbora eta espazioa eta Berbaroko begiraleen aholkularitza eta dinamizazioa izango daben askotariko ekintzak izango dira Haur Literatura Aretoan.

Liburu berriak ikusi, ikutu eta irakurtzeko aukera izango dabe hurrek euren gunean, eta egi-

Ipuin-kontaketa
saioak, eskulanak,
aurkezpenak,
antzezlanak...

Azokatik eskualdeko eskoletara, hazten

Durangoako Azokaren inguruan sortu eta gurasoen eskutik helduta Durangora etorritako haurren gaitasuna, eta azken urteetan Durangaldeko herrietako ikastetxetara hedatu da Durangoako Azokako Haur Literatur Aretoa: Azokako egunen inguruan, 5.000 eskola-umek hartzen dabe Berbarok

eurentzako pentsatutako ekimenean parte. Elorrio, Zaldibar eta Durangoako eskoletan, eta aurten lehenengoan, Zornotzan be izango da Haur Literatur Aretoa: azoka egunen aurretik egin zituen gainerako herrietako saioak, eta abenduaren 9 eta 20 artean da Durangoako ikastetxetako 2.300 umeen txanda.


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko abenduaren 4a - 8. urtea - 354 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo, Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.

FITXAK

Olatu guztien gainetik



- Egilea: Miren Agur Meabe
- Ibaizabal argitaletxea
- Marrazkilaria: Enrique Morente

AURKEZPENA:
Abenduak 5, 15:30

Nur eta herensugearen tenplua



- Egilea: Toti Martínez de Lezea
- Erein argitaletxea
- Marrazkilaria: J.L. Landa

AURKEZPENA:
Abenduak 5, 18:30

Errazetak



- Egileak: Eneko Atxa eta Andoni Lupiañez
- Di-da kooperatiba

AURKEZPENA:
Abenduak 7, 17:00

Agur ama!



- Egilea: Yolanda Arrieta
- Ibaizabal argitaletxea
- Marrazkilaria: Aitziber Alonso

AURKEZPENA:
Abenduak 5, 15:30


Zaintxo



- Egilea: Pello Añorga
- Erein argitaletxea
- Marrazkilaria: Jokin Mitxelena

AURKEZPENA:
Abenduak 6, 11:30

Arre! arre!



- Egilea: Antton Kazabon
- Erein argitaletxea
- Marrazkilaria: Jon Zabaleta

AURKEZPENA:
Abenduak 7, 18:00

Tristan, triste



- Egilea: Antton Kazabon
- Erein argitaletxea
- Marrazkilaria: I. Martiarena "Mattin"

AURKEZPENA:
Abenduak 7, 18:00

Haur Literatur Aretoa

Abenduak 5

10:30-11:30
11:30-12:30
12:30-13:30
13:30-15:30
15:30-16:30

Irakurketa librea
Eskulanak
Ipuin-kontalaria (Alaitz Muro)
Irakurketa librea
'Olatu guztien gainetik' eta 'Agur Ama!' liburuaren aurkezpenak
Eskulanak
'Ipuinak musikarekin' saioa
'Nur eta herensugearen tenplua' liburuaren aurkezpena

Abenduak 6

10:30-11:30
11:30-12:30
12:30-13:30

Irakurketa librea
'Zaintxo' liburuaren aurkezpena
'Pantxika, txinparta ederra zalaparta' antzezlanak
Irakurketa librea
Eskulanak
Ipuin-kontalaria (Maite Franko)
Euskal Karaokea
Irakurketa librea

Abenduak 7

10:30-11:30
11:30-12:30
12:30-13:30

Irakurketa librea
Eskulanak
'Elefante txiki bat' liburuaren aurkezpena
Irakurketa librea
Eskulanak
'Errazetak' liburuaren aurkezpena
'Arre, arre' eta 'Tristan, triste' liburuaren aurkezpenak
Irakurketa librea

Abenduak 7

13:30-15:30
15:30-17:00
17:00-18:00
18:00-19:00

19:00-19:45

Abenduak 8

10:30-11:30
11:30-12:30
12:30-13:30
13:30-15:30
15:30-17:00
17:00-18:00
18:00-19:00
19:00-19:45

Irakurketa librea
Eskulanak
'Antzokiko istorioak' antzezlanak
Irakurketa librea
Bideo emanaldia
'Dantzaz blai' berbena
Eskulanak
Irakurketa librea

kutxa Durangoko Liburu-Azokan

gizarte ekintza

kultura

Aurten ere, beti bezala, Liburu eta Disko Azokan izango gara gure argitalpenen berri ematen.
Artekaleko 19 - 20 standean aurkituko gaituzu.

Hemen ere sartgai izango dira:
kutxa Fundazioaren argitalpenak:

- Donostiako Getaria 19 eta Abuztuaren 31 kaleetako gure bulegoetan.
- www.kutxasocial.net
- Liburudendetan

zer nahi duzu bihar?



Cil Cafetto

by ^{personal} espresso

5 kafe barietate ezin hobe kafetera bakar batean?

Espresso profesionala
Dosi bakarreko Personal Espresso sistema berriaren bidez, zuk zeuk egindako kafe espresso profesionala gozatuko duzu.

Zentzumenetarako plazer hutsa
Personal Essosok, presioz aterata, kafearen usain eta zapore guztiak lortzen ditu.

Erraza, garbia eta azkarra
Kafe barietatea aukeratu eta kapsula kafeteran sartu baino ez duzu egin behar; segundo gutxitan kafe espresso profesionala eta ezin hobea izango duzu prest.

Primerako kafea prestatzea inoiz baino errazago.



*La Tostadora dendara hurbil zaitetz zure etxerako monodosietako *espressorik* onena ezagutzera
Andra Mari Kalea, 8 (Durango) – 946 814 836
Mazarredo zumardia, 8 (Bilbo) – 944 245 116*

LIBURUAK

Huntza hezur berritan



Egilea: Juan Ramon Makuso
Argitaletxea: Erein

Hirugarren poema liburua dauen *Huntza*

hezur berritan aurkeztuko dau Juan Ramon Makuso filosofia irakasleak.

500 urte Andra Marian bateo ura dariola



Egilea: Hainbat
Argitaletxea: Uribarriko Andra Maria basilika

Durangoko Uribarriko Andra

Marian lehenengo bataioa egin zela 500 urte direla-eta kaleratu dau zenbait egile batzen dituen liburua basilikak.

Olatu bat kuarteren gainetik



Egilea: Xabier Amuriza
Argitaletxea: Lanku Bertso Zerbitzuak

Dinosauroak horizontean eta Orain ezin naiz

hil liburuen jarraipena da Xabier Amurizaren azken lan hau. Joan ziren zikloa osatu dau.

Eneko Atxaren errazetak



Egilea: Andoni Lupiañez
Irudigilea: Barbara Vera
Argitaletxea: Di-Da

Euskarazko errezeta liburua

da *Eneko Atxaren errazetak: umeeekin jolasean egiteko errezetak* Di-Dak kaleratutako argitalpena.

Julene Azpeitia Lehiaketa 2009




Egilea: Hainbat
Argitaletxea: Durangoko Udala

Julene Azpeitia bertso-paper, olerki eta ipuin lehiaketara

aurkeztutako lanak batuta liburuxka kaleratu dau aurten be Durangoko Udalak eta Azokan izango da.

Antzinako Europaren hitz nagusiak



Egilea: Josu Naberan
Argitaletxea: Gaiak argitaldaria

Antzinako Europaren hitz nagusiak liburua

aurkeztuko dau Euskal Liburu eta Disko Azokan ofizioz itzultzailea den Josu Naberanek.

Ipuinik ipuin Mañarian gora



Egilea: Errose Bustintza
"Mañariko"
Argitaletxea: Labayru Ikastegia-BBK

XX. mende hasierako idazle

ezagunaren 51 ipuin batzen ditu bilduma honek. Mitologia, magia, alegia, erlijioa... dira batutako gaiak.

Ulysses Moore, denboraren atea



Egilea: P. Baccalario
Itzulpena: Aitor Arana
Argitaletxea: Gero-Mensajero

Abentura eta misterioa batzen

dituen Ulysses Moore bildumaren lehenengo liburua da hau, Aitor Aranak itzultakoa.

Errebonbilloak




Egilea: Iñaki Irigoien
Argitaletxea: Gerediaga

Durangaldeko eta Bizkaiko beste arma erakustaldi

batzuen sorreran sakondu dau Iñaki Irigoienek Gerediaga elkarteagaz kaleratutako *Errebonbilloak* liburuan.


Jesukristoren otoitzean



Egilea: P. Loidi
Itzulpena: Jose Mari Kortazar
Argitaletxea: Uribarriko Andra Maria basilika

Jesukristoren otoitzean argitalpena aurkeztuko dau egunotan Durangoko Uribarriko Andra Maria basilikak.

Ulysses Moore, ahaztutako mapen denda



Egilea: P. Baccalario
Itzulpena: Aitor Arana
Argitaletxea: Gero-Mensajero

Tutankhamonen garaiko Egiptora eroango dau irakurle abentura honek. Bildumaren 2. liburua dogu.

MUSIKA

Zubia



Egilea: Mikel Urdangarin
ekoiztetxea: Baga-Biga musika ideiak

Urriari Bilbon aurkeztutako *Zubia* diskoa

ekarriko dau Mikel Urdangarin zornozarrak Durangora. "Sentsazioak deskribatzen dituen irudi asko batzen" ei ditu lan barri horrek.

Heldu eskutik



Egilea: Etxe Ekoiztetxea:
Baga-Biga musika ideiak

Denpora hartuta eta lagun giroan osatutako diskoa kaleratu dau Etxe

berrizarrak. Urtebetean jardun dau lanean, eta datozen egunetan dogu horren emaitza Azokan: *Heldu eskutik*.

Mongo



Egilea: Xabier Elias
"Mongo" EKOIZTETXEA:
Rock Izar

Bere izena hartuz kaleratu dau lehenengo dis-

koa Xabier Elias "Mongo"-k. Durangoko artista autodidaktak blues doinuak ditu oinarri. Rock Izar ekoiztetxeagaz grabatu dau.

BESTE ELAKOAK

Anboto Egutegia 2010



Egilea: Anboto
Argitaletxea: DHK

Anbotoren 2010eko egutegia salgai egongo da aurten be Durangoko Azokan, Topagunearen erakustokian.

Astola: ikerketa eta historia



Egilea: Gerediaga
Argitaletxea: Gerediaga kultur elkarte

Astola urtekariaren 3. alea jarriko dau salgai

egunotan Gerediaga elkarteak Durangoko Azokan. Ikerketa lanak batu ohi ditu, argazkiek eta irudiek protagonismo handia hartuz.

Gerediaga Egutegia 2010



Egilea: Gerediaga
Argitaletxea: Gerediaga K.E.

Gerediagak ohi dauen moduan datorren urteko egutegia jarriko dau salgai Euskal Liburu eta Disko Azokan.

Bame baretik



Egilea: Galdare
Argitaletxea: Iurretako Udala

Herriko historia, tradizioak eta kultura batzen dituen DVDa kaleratu dau Iurretako Udalak, eta Durangoko Azokan be jarriko dau salgai. Urtebete egin dabe irudiak grabatzen. Euskaraz eta gaztelera.

• Oinetako patologiak
• Neurritza egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

Podologia Urdeta Jainaga
PODOLOGIA 100. Enargotzilea

Herriko gudarrien kalea, 10 - beheak
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94.621 54 04

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

MINKENDU
MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Liburu eta Disko Azoka

Iurretan lan eta eraikiz, Zarate eta Elexpe Eragileak



Iurretan dauka egoitza Zarate eta Elexpek, eta Iurretan bertan dauka eskaintza bereziena: Elixalde proiektua. Durangaldean erreferentzia den enpresa susta-tzailea da Zarate eta Elexpe. Higiezinaren sektorean lan sendoa egiten dau, eta belaunaldi aldaketak egitasmo barriak ekarri ditu, aurrekoen filosofia mantenduz.

- Etxebizitzaren kudeaketa, sustapena eta eraikuntza ditu lan esparru Zarate eta Elexpe enpresak.
- 1960an hasi eban ibilbidea bi kide ekintzaileraren eskutik, eta urtez urte sendotzen joan den proiektua da.
- Lan filosofiak bi oinarri daukaz: giza-talde kualifikatua eta produktuaren kudeaketa integrala.
- Helburua bezeroaren eskakizunei modu osoan erantzutea da, konfiantzan eta profesionaltasu-nean oinarritutako hartu-emonaren ezarria.
- Proiektu bakotxa modu partikularrean lantzen dabe: lurra erostea bideragarritasuna aztertuz, proiektua zehaztea, kontu handiz gauzatzea eta sustapenak zuzenean bezeroen artean merkaturatzea.
- Enpresa osatzen dauen giza kapitalaren prestakuntzaren aldeko apustu irmoa egiten dabe.
- Zarate eta Elexperen konpromisoa enpresa soiletik harago doa, inguruneagazko gizarte ardura bere gain hartzen dabe-eta.

1960an hasi eban ibilbidea enpresak, eta urtez urte sendotzen joan den proiektua da

Euren konpromisoa enpresa soiletik harago doa, inguruneagazko gizarte ardura euren gain hartuz



Iurretan, etxebizitzak esku-eskura

Iurretan, herriko plazan eskaintza berezia dauka Zarate eta Elexpek: Plaza inguruan altzatutako Elixaldeko etxe-bloke barriak. Hona datu batzuk:

ONDO KOMUNIKATUTA

- Eskola, frontoia eta liburutegitik hur.
- Udaletxea alboan.
- Durangotik gertu.

JOLASGUNEA

- Umeentzako prestaturiko parkea, kulunka eta gainerakoekin.
- Berdegunea.



Plazaren birmoldaketa

Iurretako proiektuan, etxebizitzetaz gainera, plaza birmoldaketa be sartzen da. Dagoeneko itxura barria dauka plazak, eta ingurune guztiak, Elixalde deiturikoak, asko irabazi dau horri esker. Toki oso atsegina da etxea edukitzeko. Bertako etxe barriak eskuratzeko aukera dago.

ZONALDE EROSOA

- Plaza handitu egin da.
- Leku oso lasaia.
- Umeentzako segurua.
- Ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bi zubi barri eraiki dira.
- Aparkaleku erosoak.



Elorrioko eskaintza: pisuak eta bi bizitzako adosatua

Durangaldean erreferentzia eta esperientzia handia daukan enpresa da Zarate eta Elexpe. Konpromiso sozialaren ondorioz, herritarrei aukera onak eskaintzea helburu dabe, eta Elorrion be hori gertatzen da. Iurretakoagaz batera, gaur egun Elorrioko eskaintzak hartu dau indarra. Hona hemen ezaugarriak:

PISUAK

- 1, 2 edo 3 gelakoak, ganbaragaz.
- Garaje itxia, ate mekanizatuagaz.
- Plazatik gertu.

BI BIZITZAKO ADOSATUAK

- Partzela eta garajeagaz.
- Isolamenduen kalitatea bermaturik.
- Bizilekuaren diseinuan parte hartzeko aukera.
- Neurria moldaturiko finantziarainoa.



Eskaintzak bertatik bertara ezagutu ahal izateko, obrak dirauen bitartean bisita gidatuak antolatzen dira. Izan be, bezeroagazko arreta erizpide garrantzitsua da Zarate eta Elexpe eragileentzat. Informazio gehiago gura izanez gero:



Dima Golf

PITCH & PUTT

golfa zure neurria!



EZAGUTU PITCH & PUTT

Dima Golf-en topaketa eta dibertimendurako eremua eskaintzen dizugu, berehala mendeen hartuko zaituen kirolarekin Pitch & Putt.

Zer da Pitch & Putt?

Golfelik datorren kirol modalitatea, bola zuloan sartzeko hiru kolpe soilik eman behar dira. 40tik 120m-ko bitarteko tartea galdituz.

Joka berezia, zilaragaria da, eta pixkana milaka zaletu erakari dituen mundu osan.

Saiatu nahi?

Has zaitez gure Praktikarako kantrari zure swing-ari ekiten.

Gura baduzu, Pitch & Putt eskolan jokatzen trebatzen lagunduko dizuten profesionalak baditugu.

Gure abonu programen bitartez ere, abantaila handiak eta deskontu bereziak izan ditzakezu.

zatoz eta gustora informatuko zaitugu!



- **Pitch & Putt eremurik onena da**, zatoz Pitch & Putt zer den ezagutzera, Kantauri aldeko zelairik zabalena, eta 18 zulo dituen bakarra Euskal Herrian.
- **Zuretzat diseinatutako zelaia**, ibilbidea Pitch & Putt kirola Katalunian sustatu duen Martin Whitelaw irlandarrak diseinatu du, eta zailtasuna eta erosotasuna orekatzea lortu du, jokoaren erroka dibertigarria izan dadin beti.
- **Golfa denon eskura**, Pitch & Putt-arekin edozein mota, adin eta baldintzako jokalariek izugarri gozaten dute.
- **Inguru paregabea**, Gorbeia eta Urkiolako parke naturalen artean gaudenez, Dima Golf topaketa eta dibertimendurako eremu paregabea da, ikuspegi lasaigarri eta toki turistikoki interesgarrien artean.
- **EKO-eremua**, zelaiaren ibilbidea sagarrondoaren artean egin da, nekazaritzako ustiapena errespetatuz eta naturako baliabideak arduraz erabiliz.
- **Jatetxea**, sagarrak bildu eta sagardo naturala egiten dugu hemen; gero gure jatetxe-sagardotegian ematen dugu, betiko sukaldaritzako janariekin.
- **Etxean zaude**, Unerik garrantzitsuenak ospatzeko aukera eskaintzen dizugu, talde, familia eta enpresetako ekitaldietarako aproposa den giro lasaian. Eskatu informazioa, ondo emango dugu neurria.



DIMA GOLF CENTER Km.38 Dima - Otxandio Errepidea (Dima gana)

Tif. 94 404 61 47

www.dimagolf.com



EUSKAL DENDA >

Katalunia eta Galiziako ordezkariak 14. Euskal Dendan



Urterik urtera, pauso txiki baina finkoen bitartez, Euskal Denda artisautza ezagutzera emoteko bide berriak jorratzen dabil. Aurten be, ekimenaren bizkarrezurrari eutsiz, aurkitu dabe jentearen interesa pizteko modua. Galeusca ekimenaren barruan, Galiziako eta Kataluniako otzaragile bana gonbidatu ditue. Euskal Herriko beste hainbat artisau gaz batera, euren lanak erakutsiko ditue Merkatu Plazan atondutako erakusketan. Beste herrialdeetako teknikak ezagutzeko eta artisauen arteko hartu-emonak estutzeko helburua be badauka topaketa horrek.

Euskal Dendaren 14. aldiak Juan Unzueta artisauaren ibilbide luze eta emankorra be sarituko dau, gaur San Agustinen banatuko diren *Artetsu* sarietan. Garain jaio eta Durangon hezi zen Unzuetak 85 urte bete ditu oraintsu, eta 11 urte gaz hasi zen zumea lantzen. Ia 75 urte honeetan nazinoarteko hainbat azokatan erakutsi ditu bere lanak, eta 1975ean Artisautza Sari Nazionala emon eutsien. Galeusca ekimenean be erakutsiko ditu bere otzarak.

14. Euskal denda

abenduak 4-5 | Durangoko Azoka Plazan

Gure artisautzarekin duzun zita!!

www.euskaldenda.info

Goizena: 11:00-14:30
Arratsaldea: 18-20-21
SARRERA: 1,00€

GALEUSCA Oinarriaren Topaketa
 Juan Unzueta-n Oinarrituta
 - Ezarpenak
 - Unzueta-ko Talarrak
 - Erosari-bakari txikiak 3.000 euro gaitra
 - Bortxak eta lan dituztenak.



J. Fernandez

DATUAK
 Stand kopurua..... 60
 Artisautzakoak..... 52
 Elikadurakoak..... 8

NONDIK
 Bizkaitik..... 29
 - Durangaldetik..... 9
 Nafarroatik..... 9
 Gipuzkoatik..... 10
 Iparraldetik..... 5
 Arabatik..... 5
 Galiziatik..... 1
 Kataluniatik..... 1

ORDUTEGIA (abenduak 4-8)
 Egunero:
 11:00-14:30 / 16:30-21:00
 Barikuan: 19:30 arte
 Domekan: 20:00ak arte

ren esanetan: "Komunikazioa arindu eta erraztu egin dogu. Esaterako, euren kezkei eta galderei berehala erantzuteko modua daukagu. Horrez gainera, Euskal Dendaren gaineko informazio gaurkotua aurkitu leikete". Oraingoz, ia 1.500 bisitari izan ditue.

Bisitariak inplikatu guran Igaz, standik onena aukeratzeko bozketa ordenagailu bitartez egiteko aukera emon eutse en bisitariei, eta aurtan be bide beretik segituko dabe. Horrek botoen zenbaketa errazten dau, asko erraztu be. Bost egunetan jasotako 14.000 botoek zein stand bereiztu daben unean bertan jakin leikete; ez Euskal Denda amaitu eta handik aste bira, lehen gertatzen zen moduan. Halan be, arlo horretan bada go zer hobetua, bisitarien botoak, sarritan, aleatorioak izaten

Aurtengoa Euskal Dendarik unibertsalena izango da

Kataluniako eta Galiziako otzaragile bana gonbidatu ditue 14. Euskal Dendaran. Eurekin eta Euskal Herriko beste bost otzaragilegaz erakusketa antolatuko dabe. Horreez gainera, beste 60 stand egokitu ditue gaurtik martitzenera Merkatu Plazan.

Euskal Herriko artisautza-
ren erakusleihu den Euskal Dendarak bere eragin eremua zabaldu egingo dau aurtan. Juan Unzueta zestagile garaitarrari *Artetsu* saria emongo deusie 75 urteko ibilbide oparoagaitik, eta, omenaldi horren harira, otzaragintza inguruko erakusketa antolatuko dabe Galiziako eta Kataluniako zestagile bana gonbidatuz. Artisauen arteko harremana sen-

Standik gehienak Bizkaikoak dira: 29. Horreetatik bederatzid Durangaldekoak

dotzeko baliatuko dabe, besteak beste, Galeusca ekimena.

Gainerakoan, Arbaso elkar-
teak antolatzen dauen 14. Euskal Dendarak, ohi dauen legez, artisautza bere adiera zabalean islatuko dau Merkatu Plazan egokitutako 60 standetan; otzaragileak, bitxigileak, txotxongileak eta abar luzea sartzen dira abaniko zabal horretan. Baita elikadura oinari daben zortzi postu be. Gehie-

nak Bizkaitik etorriko dira: 29 guztira. Gipuzkoako eta Nafarroako hamama eta Arabako eta Iparraldeko bosna standek osatuko dabe erakusketa. Arbaso elkartekoek jakinarazo dabe, 10 artisau lehenengo dotoz Euskal Dendaran.

Artisautza tradizioa eza-
gutzero emoteko ahaleginean, baliabide teknologikoen eskainitako abantailak geroago eta presenteko ditue. Horregaitik, aurtan Euskal Dendarak bloga eta facebooka ditu interneten. Bate-tik, informazio osatua sarean ipinita, paperean gastatu ohi eben dirua aurreztu dabe. Bestetik, artisauekin hartu-emona hobetzeko balio dau Bernat Vidal Arbasoko lehendakaria-

Aurtan ordenagailuz bakarrik bozkatu ahalko da standik onena aukeratzeko

direlako. Horregaitik, aurtan sarreragaz erosteko baleen zozketan sartuko dira bisitariak, eta Euskal Dendaran erosten dauenak bakarrik izango dau botoa emoteko aukera. Modu horretara, "erakusketa osoa bisitatu dabela segurtatuko dogu, eta botoek balio handiagoa izango dabe", Vidalen ustez. Aurtan, bisitariak ez eze, Arba-

ARTE IKASKUNTZA TAILERRA
MENDI
 Antxon Mendizabal Sanz
 -Zurezko Arte Lanak-Taila-
 -Eskultura-Margoa
 Galtzara Nagusia, 22 Solairuarde (Gros)
 20.001 DONOSTIA Tel. 943 27 70 36
 www.mendi.info

GOENAGA
 25 urte elkarrekin!
 www.yogurgoenaga.com

GORROTATEGI
 Plaza Zaharra, 7
 20400 Tolosa Gipuzkoa
 Tel. 943 65 12 38
 www.gorrotategi.com
 Euskal Dendaran elkarrekin dugun!

baserriko@ogia euskal pastela
BE TI KOGIA
 Iguarte baserria 48410 OROZKO Bizkaia
 Tel. eta Faxa: 946 330 573 / 680161860
 betikogia@gmail.com
 Ogia egiten ikasteko tailerrak antolatzen ditut
 Zorionak eta urte berri on!!

sok be stand bat sarituko dau "bisitarien gustuak eta gureak ez datozelako beti bat". Igaz Elisabeth Toledo "Clota"-ren standak irabazi eban. Argentinan jaio eta Portugaleten bizi den emakumeak goma-aparrezko txotxongiloak egiten ditu.

Idazlan lehiaketa

Azken urteetako joerari jarraituz, aurten be gaztetxoan idazlan lehiaketa antolatu dabe. Kurutzia 4., 5. eta 6. mailakoek Juan Unzueta omenduaren gainean idatzi beharko ditue testuak: "Irabazleak bere lana *Artetsu* sarien banaketan zuzenean irakurtzea gura geunke. Ikusiko dogu posible den". Igaz laugarren mailako gaztetxo bik irabazi eban: Ibon Arin eta Amaia Unzuetak.

Euskal Dendaren bloga:
euskaldenda.blogspot.com

Idazlan lehiaketan Juan Unzueta-aren gainean idatziko dabe gaztetxoek

"Hartu-emonak sendotzea gura dau Galeuscak"

Euskal Dendako sarreran Kataluniako eta Galiziako otzaragile banaren eta Euskal Herriko beste bosten lanekin erakusketa antolatuko dabe, kulturen arteko hartu-emonak sendotzeko asmoz.

Galeusca ekimenak sasoi batean Arbasok Tolosan antolatzen eban azokan dauka sorburua. Urte birik behin, Kataluniako eta Galiziako seina artisau gonbidatzen zituen: "Ekimena interesgarria zen, baina azokak, goizetik gauera, gure arreta osoa eskatzen eban, eta ez geunkan padatzaz jesarri eta hartu-emonak benetan estutzeko modurik", gogoratu dau Vidalek.

Bestalde, sasoi batean Kanariar Irletan izandako nazioarteko topaketa baten ondoren, Kataluniako eta Galiziako hainbat artisauk deitu eban Arbasora Juan Unzueta-aren liburua (*La cesteria del castaño en Durangaldea*) non erosi zeikeen galdetuz. Hari mutur biak

lotuz, otzaragintza oinarri dauen erakusketa antolatu dabe Euskal Dendan Galeusca izenagaz: "Artisauen arteko hartu-emonak sustatzeaz gainera, Juan Unzueta-ri egindako lana eskertzeko beste modu bat be bada", azpimarratu dau Vidalek.

Ourensetik Maria Jesus Labrador etorriko da, eta Kataluniako Fogueroles herritik Joan Farre. Juan Unzueta-aren otzari Euskal Herriko beste lau artisauen lanek lagunduko deute: Jose Luis Etxebarria azpeitiarrak, Jose Berrio gas-teiztarrak, Jose Ramon Sal-manton zallarrak eta Miguel Angel Arriaga berriztarrak (Arriagak zesta-puntarako zestak egiten ditu). Guztira, 100 bat ale ipiniko ditue ikusgai.



J. Fernandez

"Oso pozik nago gonbidapenagaitik"



Joan Farrek (53 urte, Fogueroles) lehenengo biderrez bisitatuko dau Euskal Herriko artisautza azoka bat. Aspaldidanik egitekoen zerrendan zeukan bidaia egiteak "ilusino handia" egiten deusala adierazo deusku. Orain 30 urte hasi zen otzaragintzan, eta lanbidea XXI. mendera arrakastaz bideratu izanaren meritua dauka.

Zelan hasi zinen otzaragintzan? Familiatik jatortzun tradizioa da? Ez, ez da familiako tradizioa. 23 urte-gaz hasi nintzen. Denporatxoan neraman lan batetik bestera aldatuz, bizitzan benetan zer gura neban deskribitu guran. Artisautzagaz neure bizitza neuk antolatzeke modua aurkitu neban. Artisautzaren barruan zergaitik otzaragintza? Ezingo neuskizu esan. Harrezkero, 30 urte joan dira. Gura neban moduan bizitzeko askatasuna emon deust. Ez naz damutzen aukera haretaz.

Ez ohiko ogibidea aukeratu zenuen. Ni hasi nintzen sasoi otzaragile gehienak ogibidez aldatzen zebizen, poliesterrak eta plastikoa merkaturatu kendu eutseelako. Halan be, ez dakit zergaitik, nire etorkizuna otzaragin-

tzan ikusten neban. Hori bai, argi ikusi neban ogibidea beste modu batera bideratu beharra zegoela. Merkatua aztertu eta eskakizun berriei erantzuten saiatu behar neban; lanen funtzionaltasuna baztertu barik, baina ikuspegi barri batez.

Garapena eta berrikuntza bilatu zenuen. Bai. Orain urte batzutatik hona, lan-kide batez sortu neban enpresagaz, otzaragintzako teknikak kale-ra, espazio zabalera ateratzen saiatzen gara. Lan handiagoak dira. Esaterako, Bartzelonan hiru metro garai diren eta hiru metroko diametroa daukien kupulak egin doguz. Proiektua arkitekto frantziar batek egin eban, eta guk zumeagaz gauzatu dogu. Beste adibide bat: zumea moztu, landatu eta egitura bat sor-

tzan dogu. Udaberria heltzean egitura hori loratu egiten da: umeek jolastu daien parkeak, gerizpe-guneak, dekoraziorako egiturak, eskulturak... sortzen doguz. Arlo horretan lan egiteko eremu zabala daukagu.

Azoketara joaten zara oraindino? Urte askoan hango eta hemengo azoketan ibilitakoa naz, baina orain ez naz askorik joaten. Aurten zortzi bat azokatan egongo nintzen. Izan be, orain, batez be, enkarguz egiten ditut lanik gehienak.

Aurretik Euskal Dendan egonda zagoz? Ez, hauxe izango da Euskal Herriko azoka bat bisitatuko dodan lehenengo biderra. Betidanik gura izan dodan zeozer izan da, eta oso pozik nago aukera eskaini deustelako.

RestaurArte
Arte Kontserbazioa eta Zaharberritzea

- Altzariak.
- Koadroak.
- Zeramika.
- Tailua.
- Urrestatzea eta Polikromatuak
- Erreproduktzioak
- Altzariaren Zaharberritze
- Ikastaroak
- *Asteartea edo osteguna Arratsaldez

Sasikoa, 22 48200 DURANGO
Tel. 946 218 2 65
restaur_arte@euskaltel.net

Zapatari
Zapategia
Artisautza

Zure oinak erandi jantziak dituzte!

Tomas de Burgi kalea, 2
31014 Iruña
Tfnoa eta faxa: 948 14 24 51
info@zapatari.com
www.zapatari.com

Euskal Jantziak
- Diseinu eta Jantzigintza

- Ezkontza.
- Ospakizun.
- Jaunartze - Bataio.
- Dantzariak, eta abar

Bizkargi, 4 Ionja
48340 AMOREBIETA
Tel.: 94 673 43 33
jaialdijantziak@gmail.com
www.jaialdi.tk

Jaialdi

“Oraindino saiatzen naz barritzailea izaten”

Juan Unzuetak ia bizitza osoa daroa artisautzan. Etxe ondoko lantegian hartu gaitu, begi bat kazetariagan eta bestea zumean. Elkarrizketan be ez deutso lanari itzi.

Bizi osoko dedikazioa eskertu gura deusue *Artetsu* sariagaz.

Benetan be, bizitza osoa. 11 urte-gaz hasi nintzen Gallartako meategietarako tresnak egiten. Aitak meategi batzuekin kontratuak zeukazen. Nire lau anaiak zaharragoak ziren, eta otzargintzan lan egiten eben. Hantxe hasi nintzen neu be osogazterik. Lana bagenduenez, tailerra ipini genduen bertan, Gerra Zibila iritsi zen arte. Orain urte batzuk Gallartako azoka batean parte hartu neban, eta hainbat lagunek gure familia oraindino gogoan zeukien. Horrek poza emoten dau.

“Euskal sukalde tradizional baterako tximinia egin neban behin zumeagaz”

Hainbeste urtean izango zenduen teknika hobetzeko denpora.

Orain, zalantza barik, gaztetan baino hamaika bider otzaragile hobea naz. Lehen, batez be, ofizioa ikasteko gauza errazak egiten nituen. Apurka-apurka, teknika lantzen eta eremu barriak ezagutzen joan naz. Beste maila batean pentsatzen dozu, beste helburu batzuk daukazuz.

Munduko bazter askotan erakutsi dozuz zure lanak.

Londresen 15 egun emon nituen Europa osoko artisauek batzen zituen azoka batean. Madrilgo FITUR azoka famatuan be birritan parte hartu dot. Estimuz gogoratzen dot orain 21 urte Galiziako 12 herritan erakutsi genduen erakusketa be.

Urte honeetan guztietan makina bat enkargu kurioso egingo utsuen.

Bai, izan be arazo bat daukat: ez dakit ezetik esaten. Behin Gipuzkoako baserri bateko euskal sukalde tradizional tximinia egin neban zumeagaz; gero, zumea buztinagaz estali neban. Beste behin, Gasteizko gargantua bati neurriko otzara egin neutsan; itzela zen, benetan. Gogoan daukat Frantziako Le Musee Dans La Rue museo-ko eskultura bat sartzeko egingdako beste otzara handi bat be.

75 urte joan dira hasi zinetik, baina oraindino ilusioa somatzen jatzu.

Asko gustatzen jat, eta oraindino gauza bereziak egiten nabil; sekula egin ez ditudanak. Neurri eta mota askotako otzarak. Ahal dodan neurrian barritzailea izaten saiatzen naz.

Galeusca ekimenaren barruan Kataluniatik datorren Joan Farre Kanariar Irlentan ezagutu zenduen.



Nire liburuagaitiko interesa erakutsi eban. Azoka haretako gomuta onak daukadaz. Joan ezagutzeaz gainera, txoko polit bi egokitu eustezen; batean otzarak egiten nituen, denen bistara, eta bestean han egindakoak eta Euskal Herritik eroandakoak erakutsi nituen.

Nori eskaintzen deusazu saria?

Jardunbide profesionalaren eremura mugatzen banaz, Bernat Vidali. Ordu libre asko guri laguntzeko erabili dau. Asko egin dau artisautzaren alde.

“Oraindino, Gallartako meategietarako lan egiten genduen sasoi gogoan daukie han”

Gaur ‘Artetsu’ sariak banatuko ditue

Gaur, 19:30ean, *Artetsu* sariak banatuko ditue San Agustin Kulturgunean. Juan Unzuetari bizi osoko dedikazioa eskertzeko emongo deusie sarietako bat. 11 urte-gaz hasi zen ofizioan, eta 85 bete barri ditu. Beraz, bere bizitzako ia 75 urte eskaini deusaz artisautzari eta otzargintzari.

Instituzioei jagoken atalean, Berrizko Udalak jasoko dau *Artetsu* saria. “Hamar urte baino gehiagoan Berrizko Artisautzaren antolakuntzan erakutsi daben konfiantza eskertu gura deusitu”, dinoe Arbasoko arduradunek.

Hedabideei jagoken alorrean, Arantza Lezamiz COPE-Bilbaoko kazetariak jasoko dau *Artetsu* saria, “urtero urtero Euskal Dendarari egiten deusan jarraipenagaitik; beti deitzen deusku inaugurazino egunean”.

Azkenik, artisautzaren zabalkundean egindako lanagaitik, *Bi Errepidean* telebista saioa be sarituko dabe. Gainera, saiko aurkezleetako bat, Urko Aristi, *Artetsu* sariaren ekitaldiko aurkezlea izan zen 2007an, eta Arbaso elkarteak Artisautzaren Enbaxadore izendatu eban ETBko *Bi Errepidean* saiko kazetaria.

DESBERDINA DENA GUSTATZEN ZAIGULAKO
Bategin gurekin!!

EUSKAL HERRIKO ARTISAU ELKARTEA

306 posta-kutxa
48200 Durango
BULEGO OROKORRA
Murueta kalea, 19-1.a
48220 Abadino
Tel.: 946 202 000
posta-e: artisautz@arbaso.com
www.arbaso.com

FORJA ARTISTIKOA
CESAR ALCOZ

Kareaga Industrialdea-2 42
48270 Markina-Xemein
(Bizkaia)
Tel.: 94 616 00 77
m.: 636 596 768

Zeramika Eskultura

-Trofeoak
-Muralak
-Lan bakarrak
-Enpresa opariak

Fika, 66
48004 Bilbao
Tel.: 687 422 275 / 606373384
itziarbengoa@hotmail.com
www.lurbeceramica.com



Argazkiexpress

“Bonbardaketen bitartez hiria belauniko jarri gura izan eben”

Bartzelona omendu gura izan dau 1938ko bonbardaketen dokumentalean Jesús Garay zinegileak. Muguruzak sortu deutso musika.

Zer gertatu zen Bartzelonan 1938ko martxoan, 16tik 18ra?
Hiriko erdigunea eten barik bonbardatzeko agindua emon eutsen Mussolinik abiazino legionarioiko aireko arduradunei Mallorcatik. Bere anbizioren indarra frogatu gura eban hiri haundi bat belauniko jartzeko.

“El Carmelen Gerra Zibileko arrastoak aurkitzean sortu zen proiektua”

Zelan sortu zen proiektua?
Grabatzera nindoan beste pelikula bateko lokalizazio bila nenbilela, Bartzelonatik gertu dagoen El Carmelen aurkitutakoak nire interesa piztu eban. Gerra Zibilean Bartzelona defendatu eban batera antiaereo handienaren arrastoekin topo egin neban bertan. Momentu haretan, tontor hare-

“Abiazinoaren erabilera masiboak gatazken bidea aldatu eban”

tatik, diseinuan eta turismoan ardazturiko hiria biziraun gura eban beste zuri-beltzeko haren-gandik zer desbardina den begiratzean pentsatu neban arrasto hareek zer esan gura eban azaldu beharra zegoela.

Pelikula honetan bi aldeak agertzen dira.
Argi neukan historia dramatikoak garatzeko piloto erasotzaile bat eta artillero defendatzaile bat izango nituela. Bi antagonisten arteko dialektika.

Lekukoen testigantzak be ikusi leitezke.
Historia irakurtzeak zera hotz bat daukala erizten deusat. Testigantza zuzenek, urruneko-

ak izan arren, emozioa emoten deusie historiari.

Zein zen bonbardaketen helburua?
Pelikulak azaltzen dituen bonbardaketen helburua gerra modu barria ezartzea zen. Abiazinoaren erabilera masiboak gatazken bidea aldatu eban. Esperimentu global baten hasieraren; ondoren, Hiroshiman eta Nagasakin amaitu zena.

Zelan ezagutu zenuen Fermin Muguruza?
Pelikularen ekoizle Isona Palsola Ferminen jarraitzailea da, eta berak konbentzitu ninduen Fermin gaz hartu-emonean jartzeko. Musikarenganako autorearen ikuspuntua dauka Fermin, eta nik zinematografikoagoa. Negoziatzen ibili ginen, eta emaitza oso ona izan delakoan nago.

Sapuetxek Azoka Alternatiboa egingo dau

Euskal Liburu eta Disko Azokagaz bat eginda, Azoka Alternatiboa zabalduko dau, beste behin, Durangoko Sapuetxe gazteteak datozen egunotan. Hamargarren edizinoa izango dauen irabazi asmorik bako ekoizleen lanak jarriko ditue ikusgai gaztetearen alboko karpian. Kultur ekoizpenak komertzioetik kanpora egotearen beharra aldarrikatu eta kolektibo txikiei lekua egin guran sortu eben ekimena.

Kontzertu eta berbaldir osatutako egitaraua antolatu dau gazteteak. Trastorno (Manaria) eta Daltondarren (Durango) kontzertuak abiatuko dau egitaraua, gaur, 22:00etan. Bihar, Humphrey Caoren (zuzeneko grabaketa) txanda izango da. Aurretik, *Transgenikos: Laboratorios siembran muerte* berbaldira edukiko dabe entzungai bertaratu direnek.

Politikomusikal Tupa N8 fanzinea aurkeztuko dabe, abenduaren 6an, 16:00etan; 18:30ean, barriz, *Peruren istorioak* ipuin kontaketa saioa hasiko da.

Bertsoak eta antzerkia
Bertso saioa eratu dabe astelehenean, 12:30ean, eta, 22:00etan, rock taldeen kontzertua: Sermond's (Durangaldea), Norman (Eibar-Ondarroa) eta Namek Planet (Elo-rrio). Abenduaren 8an, *Okupatu eta ez etsi berbaldira* emongo dau Juantxo Esteban- ranez, eta, 18:30ean, *Karaokearen gaua* antzezlanaren aurkezpena dau Zurrunkak.

Sapuetxe alboko karpian hartuko dau hamargarren aldia daukan azoka

“60ko hamarkadan olatua arin eta bizi hazi zen, idealismo handiagaz”

‘Dinosauroak horizontean’ eta ‘Orain ezin naiz hil’ liburuen ondoren, ‘Joan ziren’ bildumako hirugarrena argitaratu dau aurten Xabier Amurizak: ‘Olatu bat kuartelen gainetik’. Lan horri buruz jardun dogu beragaz.

Liburua 60ko hamarkadan garatzen da. Aipatu izan dozu bizi eta ezagutu izan dozun hamarkadarik esplosiboena izan zela. Horri egiten deustso erreferentzia olatuak?

Olatuaren eta kuartelen arteko kontrasteak ondo definitzen dau sasoi haretako gorakada. Gauzak arin eta bero irauliziren. Frankismo luzeke ilunpearen ondoren, pizkunde bat izan zen. Olatua denpora laburrean hazi zen, eta gauza asko aldatu zituen; ez politikoki bakarrik, olatu moralari buruz be banabil, besteak beste. Orduan ez zegoen ez alderdik eta ez ezer. Mugimendua nahiko batera zetorren. Bateratasun hori, nik eta nire sasoiok, apur bat amets utopiko legez bizi dogu. Orduan be izango ziren desadostasunak, baina sentsazioa horixe zen: dena batera zetorrela, idealismo handiagaz. Gero, kartzelako urteen ondoren bueltatu nintzanean, olatua apurtuta zegoen. Dena dela, holakorik ez dot neure bizitzan berriro ezagutu, eta ez dakit Euskal Herriko historian hain denpora laburrean halakorik emon den.

Liburua apur bat barrurakoa da; hurrengoak hamarkada bera landuko dau, baina ikuspegi kolektibotik

Hamarkada hari bildumako liburu bi eskainiko deustazuz.

Edozein hamarkadatan aurkitu daitekez motibo literario asko, baina hamarkada haretan hainbeste bizipen eder eta motibo literario handi ikusten nituen, liburu bakarri barik bigarren bat be eskaintzea erabaki neban. Gainera, mintzagai dogun liburua “ni”-an idatzita dago; eta holako liburuak, intimistak esatera ez naz ausartzen, baina apur bat barrurakoa dira. Hurrengo kolektiboa izango da; ez da izango “nik ikusi nuen”, “ni joan nintzen”... Gertaerak liburu bietan dira kolektiboak, baina oraingoan ispilu indibidualetik ikusitakoak dira. Itxura literarioa diferentea da.

Zenbat dauka autobiografiatik?

Oso identifikagarriak diren zati batzuk badagoz, baina beste batzuk, ordea, ez. Azkenean, idazle batek idazten dauen guztia da zelanbait autobiografikoa, berea emoten dauelako. Ni abade egon nintzen Gizaburuagan, Amoron, Lekeition... Bai, badagoz jentek identifikatzeko moduko kontuak, baina horrek ez dau esan gura nire autobiografia denik. Hortik kanpora genero eta kontakera literario bat dago.

Gertaerak motibo edo atxakia bat direla aipatu izan dozu. Irakurlea sasoi haretan barik liburuan barneratzea gura dozula.

Sarritan entzuten da “Sasoi ha bizi ez ebenek zelan ulertuko dabe...” topikoa. Eragozpen inozo edo kokolo samarra

da, horrek ez daukalako zerikusirik. Irakurleak ez dau garai haretan sartu behar, liburu honetan sartu behar dau. Aro bat derrigor bizi izan beharra balego, ez legoke literaturarik irakurtzerik. Beste kontu bat da liburu honek lortzen dauen irakurlea sasoi haretan sartzea. Gertaera batzuk ezagutu izan dituenak eta irakurleak modu diferentean biziko ditu, hori bai; baina irakurleak ez dau hau holan edo bestera izan zen planteatuko. Liburu honetan sasoi baten eta motibo batzuen espresino bat dago.

Marcel Prousten Denbora galduaren bila bildumagaz badauka lotura Joan ziren bildumak. Liburutegi askotan Prousten liburuak almazenean gordeta dagoz. Ahalegin intelektuala eskatzen daben liburuak ez gaitue antza erakartzen.

Jenteak gauza arinak gura ditu; entretenigarriak direnak, esan daigun. Proust hemendik ehun urtera gaur bezain geniala izango da. Irakurle arinek ez dabela nahi? Halan be, gaur egun irakurle asko dagoz Proust estimatzen eta irakurtzen dabenak. Ni ez nabil jendearen entretenimendurako idazten; ni hamarkada horren eta aukeratutako motiboen garapen indartsu bat egiten nabil. Konbintzentea eta sendoa izan gura dot. Egongo dira egoera horretan sartzen direnak, eta horreendako idazten dot.


Lankuren bitartez argitaratu dozu oraingo obra.

Lehenengoa neure kabuz argitaratu neban; bigarrena dohainik eskuratu zeitekeen Interneten. Baina nobere kontura eta erdi bakarrik ibili behar hori... Hirugarrena be Interneten ipintzeko asmoa neukan, Lankuren proposamena heldu jatanean. Gaztelerara itzultzea be gustatuko litxakit, baina arrakasta minimo barik gatxa da. Ikusiko dogu horretarako aukerarik dagoen.

Ez dator harira, baina Mirenen txapelketaren gainean be galdetu gura deustut.

Ez berak, ez nik, ez inork ez genduen pentsatzen holako txapelketa egingo ebanik. Edade horretan txapelketa biribila egin dau, eta Mireni be olatu txiki bat etorri jako gainera. Lehenengo saioan ederto jardun eban, bigarrenean be bai eta hirugarrenean pota bat egin ebalako, bestela hortxe ibiliko zen. Finalean sartzea larregi izango zen. Egia esanda, nik ez dot bere txapelketako saiorik zuzenean ikusi. Berak ez eban gura, eta neuk be ez.

Aukeratutako motiboen garapen indartsua egin gura izan dot; ez nabil entretenimendurako idazten



Bizialdia eta Euskal Herria motibo hartuta

Zortzi liburuk osatuko dabe *Joan ziren* bilduma. “Neure bizialdia eta ezagutu dodan Euskal Herria hartuta egiten nabilen lan literarioa da”, dino Amurizak. Edukiaren aldetik eta literarioki zein estetikoki “hemengoa, geurea interesatzen jat” dino: “Bizitza nahiko gorabeheratsua eta mugitua izan dot, eta hemen badaukadaz motibo nahikoak bilduma osatzeko”.

Dinosauroak horizontean lehenengo liburua umezaroari jagoko, eta *Orain ezin naiz hil* bigarrena gaztaroari: “Liburu batean batu nahi nituen, baina luze urten jatan, eta bitan zatitza erabaki neban”.

Hirugarrena mintzagai izan dogu elkarrizketan, eta laugarrenak be 60ko hamarkada izango dau oinarri, ikuspegi globalago batetik.

Bosgarrenak kartzelan eman zituen urteen esperientzia kontatuko dau. Hurrengoan, barriz, kartzelatik irten zeneko sasoi landuko dau; frankismoaren amaiera, demokraziaren etorrera...

Zazpigarrena eta zortzigarrena osatzeko, denporan zenbat eta honantzago etorri, “gero eta motibo gitxiagaz aurkitzen naz”: “Motibo konfliktiboak badira, baina ez 60ko hamarkadakoak beste apasionanteak”.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Literatura, musika eta hamaika ekitaldi ikasi eta jai giroan gozatzeko...
Badakizue zergatik?

Bere kultura zaintzen duenak...

...geroan jasoko fruiturik onenak!



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

- > **Mekanikako Ingeniaritzan Gradua**
Ingeniería Mecánica
- > **Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan Gradua**
Ingeniería en Diseño Industrial y Desarrollo De Producto
- > **Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan Gradua**
Ingeniería en Organización Industrial
- > **Industria Elektronikako Ingeniaritzan Gradua**
Ingeniería en Electrónica Industrial
- > **Informatikako Ingeniaritzan Gradua**
Ingeniería en Informática
- > **Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzan Gradua**
Ingeniería en Sistemas de Telecomunicación

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > **Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua**
Administración y Dirección de Empresas
- > **Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua**
Liderazgo Emprendedor e Innovación

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > **Ikus-entzunezko Komunikazioan Gradua**
Comunicación Audiovisual
- > **Haur Hezkuntzan Gradua**
Educación Infantil
- > **Lehen Hezkuntzan Gradua**
Educación Primaria

Ikastolen sorreran lehenengo pausoak emon zitueenei omen

Gerediaga Elkarteak ikastolen hasierako garaietako andereñoen lana goraiatu guran, 'Argizaiola' saria emongo deutse. 'Gaean argi' sari banaketa abenduaren 5ean izango da, San Agustinen.



Euskara eta euskal kulturaren alde lan egiten daben erakunde eta pertsonak gogora ekartzeko, *Argizaiola* saria banatzen dau urtero Gerediaga Elkarteak Azokako egunetan.

Aurten, ikastolen hasierako garaietan andereno izan zirenen lana gogora ekarri eta saritu gura izan dabe Azokako arduradunek. Euskal kulturaren erakusleho den Durangoko Azokak emakume horreek Ikastolen mugimenduaren alde jarritako lehenengo harria eskertu eta sarituko dau.

Garai haretako bost anderenek islatuko ditue Euskal Herri osoko irakasle hareek. Hegoaldeko lurralde bakoitzeko andereño bana aukeratu dabe, eta Iparraldeko beste bat.

Bizkaiko anderenoen ize-nean saria jasoko dauen Begona Aranguren Berrizen hazitakoa da. Gainerakoak, Izaskun Arrue (Araba), Libe Goni (Iparralde), Izaskun Gastesi (Nafarroa) eta Karmele Esnal (Gipuzkoa) dira.

Barakaldoko ikastolan 18 ikaslegaz ekin eutsan Begona Aranguren eskolak emoteari. "Gustura egin genduen lana izan zen, eta inoiz ez genduen pentsatu horregaitik sari bat jasoko genduenik", azaldu deusku. Baliabide gitxigaz eta kondizino eskasetan behar egin eben arren, pozik egindako lana izan zela azaldu deusku anderenoak.

Gurasoek be euren seme-alabak euskaraz ikasteko sasoi haretan egindako lana be azpimarratu dau Aranguren: "Guraso eta irakasleok bat egin genduen. Beti elkarregaz lan eginez, familia bat ginin. Eskolako orduetatik kanpora be behar handia egin genduen denok". Begonaren berbatan, ekimen haren arrakasta gaur egun ikastolek daukien arrakastan islatzen da.

Baliabide gitxigaz baina poztasun handiz egin genduen lan

'Gaean argi'
Sari banaketari *Gaean argi* izena jarri deutso Gerediaga, saria jasotzen dabenen lana halantxe irudikatzen dabela erizita. Sari banaketa zapatuan, abenduaren 5ean, iluntzeko 20:30ean, San Agustin Kultur Gunean izango da.

Seme-alabek euskaraz ikasi zeien ilusino handia zeukien gurasoek

baske pensiones: etorkizundun plana



baske pensiones
e.p.s.v

Urtea amaitzear dago: sasoi da etorkizunaz pentsatzeko zure **baskepensiones** planaz pentsatzeko. Zatoz **BBKra** eta hitz egingo dugu.

Hemen gaituzu bbk=

Bilbao Bizkaita Kutxa, Gurekin Gabeleko Zerbitzuak eta Gendakortuen Kudeatzailea

Ahotsenea, sortzaileen eta zaleen elkargunea

Abenduaren 5etik 7a bitartean zabalduko den sortzaileen gunean gertatutakoa zuzenean aditzeko aukera landuko dabe; aurtan, internet bitartez be hedatuko dabe.

Antzerkia, musika, literatura...oro har sortzaileei begira sortutako gunea da Ahotsenea: Euskal Liburu eta Disko Azokan publikoari zuzenean eta hurbiltasunez euren lanak aurkezteko gunea. Igaz sortutako Ahotsenea ekimen independente, profesional eta autonomoa da, euskalduna ez eze, eta, aurtan be, parte-har-

tzaile zerrenda luze eta askotarikoa batu dau: Karmele Igartua, Igor Estankona, Pirritx eta Porrotx, Yolanda Arrieta, Aitziber Alonso, Leire Urbeltz, Iker Goenaga, Karmele Jaio, Bide Ertzean, Unai Elorriaga, Juan Kruz Igerabide, Fermin Etxegoien, Edorta Jimenez, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Gose, Xabier Amuriza, Juan Ramón Makuso, Etxe, Esne Beltza, Ken Zazpi, Uxue Alberdi, Berri Txarrak, biDEhUTS diskak, Mamba Beat, Piztiak...

Euskal Herri osora
Aurtan, gainera, egun honeetan Durangoko Azokara hurreartzeko aukerarik ez daukienez



Gerediaga Elkarte

eta Euskal Herriatik kanpo bizi diren euskaldunek sortzaileen jardunaren barri izateko aukera izango dabe, Ahotseneak zabalik dirauen bitartean; bertan gertatzen den guztia zuzenean aditzeko aukera landuko dabe, Internet bidez Euskal Herri osora zein mundura hedatuz, antolatzaileek dinoenez.

Musikarientzakoa eta literaturarentzakoa. Espazio bi izango ditu Azokaren alboan

egokitu daben Ahotseneak, abenduaren 5etik 7a bitartean, elkarrizketak, mahai-inguruak, solasaldiak eta zuzeneko emonaldiak batuz. Baina, "batez be, literaturazale, musikazale, ikusle eta entzuleen parte-hartzea bermatuko dogu". Kazetari bik, koordinatzaileak eta produktzio arduradunek osatu dabe egitaraua, idazle, musikari, editore eta disketxe zein argitaletxeen adostasunagaz.

Mahai-inguruak, zuzeneko saioak, elkarrizketak... eskainiko ditue

Espazio bi batuko ditu Ahotseneak; bat musikarientzat, bestea idazleentzat

kiroljokoa

LAU T'ERDIKO TXAPELKETAREN FINALA Abenduak 8
Zatoz gurera eta bizi finala!

Nork jantziko du TXAPELA?

Kiroljokoa Durangon:
Tabernak: Alpino, Paulaner Bier Hause, Rey de Copas, Silver City, Bestalde, Horse, Susos
Apustu-etxea: Goienkale 11

Gogoeta pausatutik poesia sortuz

Hamabostero poesia tailerra gidatzen duen eta urteetan filosofia irakasle izan den herrian mintzatu zaigu Juan Ramón Makuso idazlea bertako, Durangoko Azokan aurkeztuko dituen 'Huntza hezur berritan' eta 'Miserikordia etxea' liburu argitaratu berriei buruz.

Durangoko liburutegian aurkeztu zenuen 'Huntza hezur berritan'.

Bai, oso interesgarria da irakurleekin horrelako harreman zuzenak izatea; Durangoko Liburutegian hamabostero izaten dugun poesia tailerrean parte hartzen duten lagunak etorri ziren, besteak beste egueneko aurkezpenera. Beste poema liburuekin egin dudana bezala, *Huntza hezur berritan* liburuko olerkiak errezitaldietan eskaintzen hasiko naiz laister.

Liburu honetako olerkiak une gogorretan idatzi dituzula irakurri dugu...

lazko abenduan bukatu eta urri amaieran aurkeztu nuen liburua Donostian. 2008ko udazkenean idatzitako olerkiak dira liburukoak: ordenagailu aurrean jesarri eta era pausatuan sortutakoak.

Sakontasunaren eta lirismoaren arteko oreka mantentzen saiatzen naiz: gogoeta lirikoa egiten

Zein izan zen liburu hau idaztera eraman zintuen hasierako txinparta?

Izenburua izaten dut hasieratik liburu bat idazterakoan pentsatua: zein metafora edo irudi erabiliko dudana zehazten dut hasieratik. Kasu honetan, liburua irudia, huntza landarea izan da: azkar hasten den landarea. Bizitzako nire ibilbidea irudikatu nahi izan dut huntzaren irudiarekin. "Hezur berritan", aldiz, emakumea haurdun geratzen denean erabiltzen den esakera da. Askok gustatu zitzaizkidan sorkuntzari buruzko gogoetan irudi biok erabiltzea.

Zeintzuk gai dira agertzen dituzunak?

Nire ibilbidean gai desberdin asko izan ditut poemak sortzeko kezka iturri: ni neu, emakumea, existentzia, heriotza, margoa arte produkzio bezala... Nire bizitzako hainbat pasarteren isla da *Huntza hezur berritan*.

Kezka iturriak aipatu dituzu...


Kezkak, darabilzun zurrunbiloak eramaten zaitu sortzera, zeure "baitaratzera". lazko udazkenean bizi izandako oina-zea izan zen sortzeko iturria: une zailak bultzatzen zaituzte idaztera, baina baita ere pozak. Batzuetan egoera ez oso erosoetatik idazten duzu, baina beste batzuetan baita bizipozetik ere. Esperantzazko begirada horren adibide da liburua azken metafora: "goizak irekitzen dizkio begiak gauari". Goiza eta gaua, bata bestea barik ez da.

Olerkietan ematen dituzu gogoetak.

Hitzekin azken kontzeptura edo munita ailegatzea gustatzen zait. Liburuan, heriotzaz dihardudala, "huntza ibilbidean doa, eta ni agortzen ari naiz hilbidean" idatzi dut. Gogoeta horiek hitzen bitartez helarazten saiatzen naiz. Gogoeta batetik abiatuta, baina era plastiko batean eta lirika batekin irakurleari ematen saiatzen naiz. Gogoeta lirikoa egitea gustatzen zait. Sakontasunaren eta lirismoaren arteko oreka mantentzen saiatzen naiz.

Poesia sari nazionala jaso duen Joan Margarit poeta katalanaren 'Miserikordia etxea' itzuli dozu euskarara.

Abenduaren 5ean bizirik dagoen poeta katalan handienetakoa den Joan Margaritekin ekitaldia izango dut Azokan, bere *Miserikordia etxea* lana itzuli baitut. Abenduaren 6an, bestalde, Erein stand-ean izango naiz.



Durangaldeko lagun bi kolaboratzaile irudigintzan



Orain arteko bere lanetan bezala, *Huntza hezur berritan* liburuan ere, Imanol Larrinaga lagun eta margolariaren irudi bat jasotzen du Juan Ramón Makusoren azken liburua azalak: poetak inspirazio iturri izan duen huntza landarearen inguruan Larrinaga durangarrak margotutako interpretazioa da liburua azala hartzen duen irudia.

Makusoren liburuko gai nagusiei erreferentzia egiten dieten Judit Fernandez argazkigile zaldibartarrak hartutako hiru argazki biltzen ditu, bestalde, *Huntza hezur berritan* liburuak: ate batean eta leiho batean hazitako huntzaren irudia, eta gitarra bat eskuarte-an daraman gizon baten irudia.

Bidajatu eroso, gozo-gozo

taxi zerbitzua

Phaeton

Taxi Geltokia • Durango

Iñigo Zabala 605 77 83 61

Ezingo deutzazu gogoari eutsi!

2X1 telepizza®

Probatu gure pizza gainerrea asteko egun guzietan. (lokalean)

Askatasun etorbidea, 25. Tel.: 94 621 81 86

BAUTISTA ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA-REN ALTZARIGILE IZARRAK PROMOZIOA

Altzarigile ugariko aukera
prestatu dugu zeure eskura
jartzeko **PREZIO IZARRETAN**
eta zure erosketagatik taloi bat
jasoko duzu opari gainera
gure dendetako edozein
produktugatik trukatzeko
edo bere prezioa
zuzenean merketzeko



**SUKALDEAK - BAINUGELAK
EGONGELAK - LOGELAK
HAURRENTZAKO LOGELAK - TAPIZAK
GORTINAK - STOREAK - ALFONBRAK
OHE-JANTZIAK - ARGIZTATZEA**

**DOAKO FINANTZIAZIOA
12 HILEAN
PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK
KONPROMISORIK GABE**

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO

“Hizkuntza germanikoetako hitz zaharrak hobeto azaltzen dira euskaratik indoeuroperatik baino”



Theo Vennemann germanista eta irakasle ezaguna Europaren baskonizitateari buruz berba egitera dator Durangora. Azokako Aretoan izango da zita, zapatuan, 16:30ean.

Hizkuntzalaritzan, gramatikari eta diakronista legez da ezaguna. Azkeneko hogeitaz gure kontinenteko aurre eta protohistoriako hizkuntza bilakaeran indoeuroparraz batera eragina izan daben hizkuntzak ikertzen dabil. Vennemannen ustez euskara eta fenizioa —Cartagotarren hizkuntza— dira garrantzitsuenak, eta hortik 2003ko bere liburuaren izenburua, *Europa Vascónica-Europa Semítica*, 1984-2000 arteko Europako aurrehistoria linguistikoari buruzko argitalpenekin eta hitzaldiekin osatua. Testu horretako batzuk gaztelaniara itzuli ditue eta liburu baten bilduta salgai jarriko dabe Gerediagaren standean Vennemannek Europaren baskonizitateaz esaten dauena eskuragarri jarritz.

Unibertsitateko dekanoko bat Europa-ko aurrehistoriaz interesatuta?

Dekanotza eta kontinentearen aurrehistoriako linguistika ikertzea batera suertatu ziren. Orduan, nik alemanieraren eta germanieraren kontsonante

ordezpenari buruzko teoria barri baten lanean niharduen, eta antzinako testuen bila nenbilien. Horrela, apurka-apurka, toki izenetara heldu nintzen, ibai eta erreka izenetara, batez be, ahozko dokumentu zaharrenak dira-eta. Hizkuntzalari batzuen ustez indoeuroparrak ziren guztiz, beste batzuen ustez preindoeuroparrak, eta ez zegoen kontrako eritzirik. Izen zaharrenen azterketan ikusi neban hobeto azaltzen zirela euskaratik indoeuroparretik baino.

Adibiderik?

Egitura ezaugarri batzuk indoeuroparretik urrun geratzen dira, eta euskaratik gertu; adibidez erreka izenetako ‘a’ bokalaren maiztasuna, izen horreetako %50 gitxi gorabehera; antzinako indoeuroparretan ‘a’ bokalak ia ez dau izaterik, eta soilik hitzen % 10ek zeukien bokala hitz hasieran. Baina, antzinako euskal hiztegi bat hartzen badogu, ohiko bokala da eta gitxi gorabehera hitzen erdiak bokalez hasten dira.

Protohizkuntza kimerikoen bila zabilzela entzun dogu, zure ikerketak historikoki argi dagoen beste ildo bat jarraitzen badau be; hau da, hizkuntzen arteko hartu-emonak.

Oinarrizko arau bat dago lurralde jakin batean historia aurretik zer hizkuntza egin izan diren zehaztu ahal izateko: toki ez hain erakargarrietan bilatzea. Holako tokirik ez badago, edo bertan beste hizkuntzarik hitz egin ez bada,

bilaketa hori itzi eta zeharkako prozedurekin hasi beharko da. Kasu batzuetan muga inguruko lurraldeetan aztar-nak dagoz. Britainia Handian, anglosaxoien aurretik berba egiten zen hizkuntzaren bila bagabilz, lehenik mendebaldeko muturrean eta bigarrenik iparraldean aurkituko dira emaitzak: han keltera hitz egin zen; beraz, Ingalaterra eta Eskozian be, saxoiak bihurtu baino lehen, kelteraz egiten zela pentsatu behar da. Berdin gertatzen da Bavieran. Hego muturrean, Alpeetan, ladinoz (erretorromanikoa) mintzatzen ziren; beraz, germanizazio aurretik Bavieran egiten zen hizkuntza zela pentsatu behar da. Noski, adibide biak historikoki frogatu leitekez. Berdin jokatu behar da aurrehistoriako kasuetan, batez be, mendi handien iparraldean (Alpe eta Pirinioak): mendebalde muturrean, mendietan, euskaraz hitz egin da, beraz, behin inguru guztian hitz egin ziren hizkuntzen zantzua beharko leuke. Gauza bera esan leiteke edozein azterketa zehatzen aurrean, garrantzia bilaketa linguistikoan badago be, eta horrela baieztatzen da arau honen bitartez lortzen den hipotesia.

Europa guztirako balioko leuen erregistro batez berba egiten dozu.

Ni asko poztuko nintzateke Europar Batasunak eragindako datu banku bat balego, non europar hizkuntzalari guztiek euren espezialitateko toponimoak (ibai, mendi eta kokalekuen izenak) gordetako litzakezen: euren inguruko informazio guztiagaz, izenaren testigantza zaharreneagaz, tokien deskribapeneekin, oraingo eta historian zeharreko erabilerekin, euren sorrerari buruzko mitoeekin, esaera zaharrekin... Deskribapen horreen konparaketen bitartez, izenaren antzinako esanahira gerturatu ginateke.

Zertarako erabiliko litzatekezu datu base horreek?

Data base horreei esker frogatuko balitz historikoki ‘ur’ edo ‘auer’ daukien izen guztiek ibai edo urarekin zerikusia daukien tokiak direla, orduan ‘ur’-ek (edo aur < ur-ek) ”Wasser=ura ”esan gura dauela argi geratuko litzateke.

“Asko poztuko ninduke Europar Batasunak hizkuntzalarien datu banku bat sortuko baleu”

Vennemannen teoriak hizkuntza baskonikoez

Theo Vennemannen teoriaren arabera, azken glaziazioaren ostean Europako sartalde, iparralde eta erdialdean, hizkuntza baskonikoak hitz egin ziren indoeuropeizazina arte. Izoztaldiaren amaieran, kontinentea bizitzeko modukoa bihurtu zen heinean, baskoiak, euskararen familiakoak ziren hizkuntzetan mintzatzen zirenak, migratzen hasi ziren. Pirinioetatik eta Frantziako hegoaldeetik irten ziren Europako iparralde eta ekialderantz. Gaur egun hizkuntza haretarik heldu jakuna euskara litzatekeela azaldu dau hizkuntzalari alemaniarrek.

Theo Vennemann germanista oso ezaguna da hizkuntzalaritzan, Californiako Unibertsitatean irakasle izan zen urte askotan, eta Muni-cheko Unibertsitatean irakasle katedraduna da azken 35 urteetan. Azken lau urteetan irakasle emeritu da. Beste herrialde batzuetan irakasle gonbidatu moduan ibili da bere hauseketeen inguruko gogoeta bultzatu guran. Durangoko Azokan abenduaren 5ean emongo dauen berbaldian Europako euskal substratua izango dau mintzagai. Gaur Deustuko unibertsitatean hitzaldia emon dau.

“Egitura ezaugarri batzuk indoeuroparretik urrun gelditzen dira, eta euskaratik gertu”

Zer da Tokikom?

Oinarrian marka bat da, euskarazko tokiko hedabideok eta gure ezaugarri eta balio komunak batzen dituena. Topagunean federatuta gagozen euskarazko hedabide lokalok osatzen dogu; ...eta kitto! (Eibar), Aikor (Txorierrri), Aiurri astekaria (Beterri—Buruntza), Aiurri hamaboskaria (Beterri—Aiztondo), Anboto (Durangaldea), Asteleheneko Goienkaria (Debagoiena), Barren (Elgoibar), Begitu (Arratia), Berton (Mahatserria), Drogeteniturrri (Ermua, Mallabia), Goienkaria (Debagoiena), Guaixe (Sakana), Hernaniko Kronika (Hernani), Karkara (Aia, Orio), Otamotz (Urretxu-Zumarraga), Pil-Pilean (Sorluze), Prest (Deustualdea), Ttipi-Ttapa (Baztan-Bidasoa-Malerrika), Txintxarri (Lasarte-Oria) eta UK (Uribe Kosta).

Tokiko aldizkariak indar txikiak batu ditue Tokikom proiektuan

Tokiko aldizkarien elkarlana bultzatzeko, Topaguneko 20 aldizkarik, Anboto tarteko dela, Tokikom marka bateratua sortu dabe. Azaroaren 8an Durangoko Liburu eta Disko Azokan proiektuaren barri emon aurretik, Topaguneko arduradunekin bildu gara.

nari, formatuari eta itxurari jago-konez; anitzak, era berean, askotariko eritziak jorratzen doguzelako; askotarikoak direlako gure irakurle eta ikusentzuleak. Baina, badira guztiok komunean daukaguzen ezaugarriak: hurbileko informazioa lantzen dogu, gai orotarikoak; masibo edo unibertsalak gara, hau da, populazio osoarendako lantzen dogu informazioa; liderrak gara gure esparruan eta tokian tokiko hedabide guztien baturak bihurtzen gaitu era berean lider (irakurrienak, ikusienak...) euskarazko hedabideen artean ez eze, Euskal Herriko edozein hedabideren aurrean. Elkarlanerako kanalak irekitzea da helburua. Zenbait arlotako informazioa partekatzea eta, zergaitik ez, guztiok batuta 220.000 irakurle baino gehiago izateak emoten deuskun indarra hobeto baliatu ahal izatea gura dogu.



Zer eskaintzen deutso Tokikomerek irakurleari?
Hasteko, webgunea aipatu behar da. Irakurleak Tokikomereko aldizkari guztien titularrak jaso ahal izango ditu zuzenean, eta

gehiago sakondu gura izanez gero, tokiko aldizkariaren webgenera eroango dau webguneak. Gainera, RSS teknologia aprobetxatuz oso erraza da. (www.tokikom.com). Aurrera

begira, denondako berdinak izan daitekezen edukiak ekoiztu eta hedabide bakotxean xertatu daitezke, informazio lokalaz gainera, beste era batekoa be bai.

Elkarlanerako kanalak zabaltzea da Tokikomen helburu nagusia

Zergaitik eta zertarako sortu dozue?
Topaguneko euskarazko hedabideok anitzak gara maiztasu-

anbotoren egutegia

betiko tokietan **SALGAI!**

anboto

komunikabideak

www.anboto.org

Durangaldeko egutegia 2010

Elkarrizketak, Durangon tronpie, Garaien tenboliz, Berrien dantzak...

Urturiko valdetan, balera durangaldekotik abiturak etxera...

"Chicagokoa esperientzia itzela izan da eta proba gainditu dugulakoan gaude"

Lekunberrin orain hamabost urte sortutako taldeak azken diskoa kaleratu zuen irailean. Berri Txarrak azken lana da 'Payola'. Gorka Urbizuk erakutsi dizkigu euskal rockaren erreferente den taldearen zirrikituak. Zirrikitu zaharrak eta berriak.



batean denok batera... Esperientzia itzela izan da, eta proba gainditu dugulakoan gaude.

Zerekin itzuli da Payola diskoa?
Kate moduko bat izan da. Alegia, kantek sortzetik zuten kutsu primitibo hori mantendu nahi genuen, grabaketan gozatugabe. Horretarako, Albin zen izenik egokiena, eta soka horretatik tira egiteak grabaketa antigoaleko era burutzea ekarri zuen. Ziurrenik ez da mundu guztiaren gustuko erabakia izango, baina senak horixe agintzen zion.

Zer esanahi du Payolak?
Tom Waitzen biografian deskubritu genuen spanglisheko hitz bat da. Irrati esatariari eskupekoa ordaintzea esan nahi du, zure musika maizago jar dezan. Deigarria egin zitzaigun eta, bestalde, zentzu orokorrago bat emanenez, eroskeriari buruzko gogoe-ta bultzatzeko balio zezakeela ikusi genuen. Payola da errege politikagintzan, esaterako. Nafarroako eta Euskadiko azken Gobernuak nola sortu diren ikusteak besterik ez dago.

Zerekin eta zertarako amesten duzue gaurko musikariek?
Ametsak ahaztu eta lanean jartzea izan zen gure hautua *Jaiio. Musika.Hil* kaleratu genuenean. Dokumental horretan rock talde batean egoteak zer suposatzen duen erakutsi nahi genuen, handikeriarik eta iragazki handirik gabe. Askotan "arrakasta" hitzaren bidez horren atzean dagoen guztia ezkutatatu nahi dela ematen du.

Zenbateraino transformatu da Berri Txarrak taldea?
Izan ditugu gure aldaketak; azken

5 urteetan, batez ere. Nazioarteko birek lan eta denbora asko exijitzen dute, eta gure taldekide batzuk taldea uztea erabaki dute, euren familia eta bizitzeko moduarekin partekatze zaila zelakoan. Hasierako espirituak hortxe darrai, baina. Ibilbide luzeak geroago eta gehiago estimatzen ditugu, berehalako emaitzak lehenesten diren garaiotan.

Euskal Rockak bere ibilbidea egin du, batzuetan gora, besteetan behera. Norako bidean da orain?
Susmoa dut ez ote gauden beti iragan minnez edo etorkizunak zer ekarriko, gaur gertatzen dena bizi, gozatu eta hobetu beharrean. Talde on askoak daude inguruan, baina jendea alper samar ikusten dut horiei arreta eskaintzeko.

Zuen lana azken urteetan nazioartean sortua eta nazioartera eramana izan da.

Gure lana Euskal Herrian sortzen da, gu euskal taldea gara, baina endogamia horretatik irteten saiatzea inportantea iruditzen zaigu, guretzat eta hein batean gure ondorengoentzat. 15 urteren ondoren guretzako ez luke inongo gatzik etengabe Bilbon edo Tolosan jotzen aritzeak. Kanpoko esperientziak asko laguntzen dizu gauzak baloratzen, besteak beste, etxeko publiko fidela, urte-tan hainbeste eman diguna.

Musikariek zenbat lan duzue abendu egun hauetan?

Maitasun-gorrotu moduko sentazioak ditugu Durangoko Azokarekiko, baina azken batean garrantzitsua da nork bere lana bertatik bertara babestea, eroste-ko prest dagoen entzulegoa esker-tzeko modua ere bada.

Platerueneko 4 zuzenekoak

U datik bueltan aurkeztu dauen *Payola* diskoan jasotako kanta barriak zuzenean eskaintzeko, abenduaren 7an Plateruenean izango doguz Berri Txarrak taldeko hiru musikariak. Asteak dira kontzerturako sarrerak agortu eta Plateruena bete zela kontzerturako, eta giro bikaina segurtatuta dago.

Bizitzari txistuka izeneko disko barria aurkezteko Durangoko Azokaren egunak aukeratu dituen beste talde bat Betagarri talde gasteiztarra da: gaur, Azokaren lehenengo egunean eskainiko ditue euren rock, reggae eta ska doinuak Plateruenean.

Punk-oi! eta streetpunk eritmoek beteko dabe bihar, bestalde, Durangoko Platerueneko oholtza: Des-kontrol arrasatearrek Durangoko Liburu eta Disko Azokaren bigarren eguna dabe *Aurrera begira* izeneko disko barriko kantak zuzenean eskaintzeko.

Zazpigarren diskoa dabe arrasatearrek uztaila, iraila eta urrian Nafarroan grabatu dabena. Laurogehiko hamarkadako Euskal Herriko rock erradikalaren oihartzuna dakarren kantak sortu ditue: indartsuak, laburrak eta azkarrak, baina itsaskorrak.

Hurrengo egunean, abenduaren 6an, *Zubiak* diskoa aurkezte-
ra etorriko jakuna Mikel Urdangarin zornotzarra izango da. Hamargarren diskoan legez, zuzenekoan be sentsazio eta irudietan oinarritutako kantak eskainiko deuskuz Urdangarinek.

Platerueneko kontzertuko sarrerak agortuta. Payola fenomeno?

Lau urte generamatzen lan berri-rik kaleratu gabe, mundu erdia iragan duen itzal handiko bira bate-tik bueltan... Ziurrenik, horrek jakinmina areagotu du, eta jendea zuzeneko berriengose zegoela diru-di. Disko bat kaleratzean beti zau-de apur bat sensible, jendeak nola hartuko duen. Payolak oso abiatze sendoa izan du alde horretatik.

Hamabost urteko lanak Chicagora eramane zaituzte.

Lehen aldia da prozesu osoa Euskal Herri-rik kanpo egiten duguna, eta behin horretara jarrita, grabatzeko moldea erabat aldatzeko une aproposa zela iruditu zitzaigun. Albin aukeratu genuen horretarako, klasikoek bezala grabatu nahi izan dugu, nahiz eta ez den aukerarik erosoena: analogikoan, 16 pista huts erabiliz, aste-batean grabatu eta nahastu, gela

44

**DURANGOKO
EUSKAL LIBURU
ETA DISKO AZOKA**

2009ko Abenduaren 4tik 8ra

DURANGOKO AZOKA ZURE ESKURA DAGO

CATALÀ & EUSKARA

X 30.000 LIBURU BAINO GEHIAGO + 4.000 m²

+ (KONTZERTUAK + ERAKUSKETAK + PARTAIDETZA + MUSIKA < JAI GIROA) X 44 URTE



gerediaga
elkartea



BFA DFB
Bilako Foru
Aldundia
Departamentu
Foral de Berria



DURANGO
Uztarri - Auzoak



bbk



eitb



EROSKI



IBA
Industria
Baztergunea S.A.



YOUTUBE-N "DURANGOKOA"



IRTENALDI LABURRAK

Asteburua durangon!
Bi estatu-grau, gasariak, bisita gidatua eta askoz gehiago!

BIZI EZAZU ABENTURAI

Ekitazioa: Ekitazioa. Zaldien mundua ezagutu gura duzu?

Egin jauzi Durangora!



durango

CREATIVIDAD Y DISEÑO LUIS / KOLEKATZES

euskadi

Bizkaia



Info: 94 603 39 38



turismo@durango-udala.net

“Irakurle birtualen belaunaldi bat agertuko da hemendik lasterrera”

Andreu Carranza (Tarragona, 52 urte) idazleak burutuko dau Azokari irekiera ofiziala emoteko sarrera berbaldia. Birtualtasuna izango dau berbagai.

‘Katalunia, bistualtasunaren sorteri’ izendatu dozu berbaldia.

Nire hizkuntza eta kulturaz egingo dot berba, beti be, neure ikuspegi subjektibotik. Kultura horrek eragina izan dau nigan, pertsona zein sortzaile legez. Horretaz guztiaz hitz egingo dot, baina birtualtasunerantz enfokatu-ta. Badirudi aldaketa sasoi-an gagozela, paperetik birtual edo digitalera pasatuko garela laster. Nire ustez, Katalunia da birtualtasun horren kabia.

Zer ideia darabilzu azken hori arrazoitzeko?

Nire hitzaldia ez da akademi-koa izango, eta ideia hori be ez da zientifikoa, eritzi bat baizik. Nire teoria zera da: estatu propio bako kultura bat birtuala dela ia berez, definizinoz. Kultura hori bultzatuko dauen estaturik barik, kolektibo birtual batean mantendu behar izan da, eta hori gertatzen da nire herrialdean. Hau prozesu historiko antzeko-an dagoen beste kasuetara be estrapolagarria da.

“Estatu propio bako kultura bat birtuala da ia berez, definizinoz”

Aldaketa baten fasean gagozela dinozu. Digitalak paperekoa jango ete dau?

Nire eritzi, datozen urteetan trantsizino sasoi batean sartuko gara. Paperezko liburuek bizi-rik jarraituko dabe, baina mundu digitalaren garapena geldie-zina da. Eskoletan, dagoeneko,

erabilera handia emoten jako formatu digitalari, eta hemendik urte batzuetara belaunaldi barri bat agertuko da, irakurle birtualez osatua.

Dena dela, ‘Imprenta babel’ zure azken lanean papereko liburua omentzen dozu.

Nire belaunaldia paperezko liburuen liburutegietakoa da, eta liburuari baina orokorrean Gutenbergen aroari omenaldia da nire azkeneko lana. Gainera, frankismoan girotzen da istorioa, eta sasoi haretan idazle, editore, inprimatzaile eta abarrek euren burua jokoan ipintzen eben idazlanak argitaratzearren.

Beraz, zure hausnarketa ez da oraingoa.

Argi itzi gura dot nik ez daukadala erantzunik, baina bai galdera, zalantza eta hausnartze-ko ugari.

Zer suposatzen deutsu sarre-ra hitzaldian egoteak?

Durangoko Azoka maila handi-koa da, eta oso pozik nago emondako arduragaitik; ez neban itxaroten. Nire kulturaren ordezkari moduan nator, eta ez da umiltasun faltsua praktikatzearren, baina Katalunian ardura horretarako gai den jente asko dago. Agian nire abizenak zerikusia edukiko dau erabakian! Nire familia euskal jatorrikoa da.

Idazlea zara, baina beste hainbat ofiziotan ibilitakoa be bai.

Orain bizimodu lasaiagoa darat, baina aurretik makina bat lanetan jardundakoa naz: musika taldea neukan gaztetan, entziklopedia saltzaile ibili nintzen... altxor galduen inguruko gidari turistikoa be izan naz! Esperientzia horrek guztiak



motxila bete, eta idazterakoan ekarpen handia egin deust.

Best sellerrak ateratakoa zara. Zer dozu orain esku artean?

Bi libururen sorrera prozesuan nago, ideiak mamitzen. Ez nago seguru oraindino hortik zer aterako den; agian bat baztertuko dot denporagaz. Bestalde, kolaborazio lanak egiten ditut aldizkari batean, eta ipuin kontalari be banabil umeekin.

“Trantsizino sasoi-an sartuko gara; mundu digitalaren garapena geldie-zina da”

Jason Epstein editoreak berbaldia eskainiko dau

Internetek eta digitalizazio-ak aldaketak dakaraz hainbat eremutan, eta hori ondo baino hobeto daki Jason Epsteinek (AEB, 1928). Editore legez esperientzia luzea izan arren, sasoi barrietara egokitzen dakienetakoa da, eta bere sormena ez da eten. Abenduaren 5ean bisitatuko dau Azoka, bere Expresso book machine asmakizuna aurkezteko.

Onerako ala txarrerako, baina Internetek liburugintza-aren panorama aldatuko dauela aurreikusten dabe adituek. Batzuei gatx egingo jake, segurutik, formatu barrieta-

ra ohitzea, baina badirudi etorkizunean idazlanak pantailan irakurriko doguzela. Horretarako tresnak merkaturatzen hasiak dira, eta Epsteinen ideia be antzeko bidetik doa. Bere makina barriagaz liburua ordenagailutik inprimatu ahal izango da saltokian bertan, eskaria egiten den momentuan.

Editore amerikar honen barrikuntza sena aspaldikoa da. Estalki biguneko liburuen sortzaile izan zen Anchor zigu-luagaz 50. hamarkadan; gaur egun eredu estandarra dena, hain zuzen be. The New York Review of Books aldizkaria be bere ideiatik jaio zen.



Bialdu zure oporraldiko argazkiak eta EROSKI BIDAIAK-en eskutik 'Villa de Llanes' hotelean, asteburu bateko egonaldiko zozketan parte hartu!

astekaria@anboto.org

EROSKI bidaiak



Zurekin

anboto astekariak Eusko Labelarekin batera **saski bat** zozketatuko dau hilero



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior



zozketa

Arabako babarrun kilo 1, "Ibarrako Piparrak" pote 1, Ezti pote 1, Idiazabal gazta erdi, "Bizkaiko Txakolina" botila 1, "Arabar Errioxako Ardoa" botila 1, Arabar Errioxako olio birjin botila 1, Txakolin-bonboi kutxa 1 eta 30 €-ko txartel 1 Euskal Okelagatik, Euskal Esne Bildotsagatik edo Euskal Baserriko Oilaskoagatik trukatzeko.

**Zenbat eta gehiago bialdu
orduan eta aukera gehiago**

Bidali edozein Label produkturen etiketa, Anboto astekarian argitaratzen den Label txartelagaz batera (31. orrialdean hamabostero), hurrengo helbidera:

Erref.: "Eusko Label Saskia"

Anboto Astekaria • Bixente Kapanaga ,9 • 48215 Iurreta

“Ilusinoz lanean diharduen taldea gabiliz Azoka antolatzen”

Azokak zabaldu ditu atek. Talde sendoa dabil urte osoan beharrean egunotan antolatutako ekintza ugariak martxan jartzen

Azokako antolakuntza-
ren zurrunbiloan mur-
gilduta dabil Aitziber
Atorrasagasti. Gerediaga
elkartean hasibarra den
arren, Azokako gorabehe-
rak berehala ikasi ditu. Hai-
ze freskoa ekarri dau elkar-
teko kudeatzaile barriak, bai
Gerediagara bai Azokara.
Eguneroko erritmo bizian
tartetxo bat hartu dau Anbo-
togaz berba egiteko. Azoka-
ri buruz ezinbestean galde-
tu deusagu, baina baita
Gerediaga elkartearen egiten
dauen lanari buruz be.

Zelan sortu jatzu Gerediagan lan egiteko aukera?

Kultura arloko elkarte baten lan
egiteko eskaintza ikusi neban,
eta aukeztu egin nintzen. Hain-
bat elkarrizketa egin ondoren,
Gerediagak nire perfila egokia
zela erabaki eban eta aukera-
tu egin nindueen.

Aurretik ezagutzen zenuen Gerediagaren ibilbidea?

Egia esanda, bere lanaren arlo
batzuk ezagutu arren—Euskal
Liburu eta Disko Azoka edo
Euskal Herriko Artzai Txakur
Txapelketa—, ez nekien ekital-
di eta lan horreen atzean Gere-
diaga zegoenik.

Zelan hartu dozu ardura hori?

Niretzat ez da ez ohiko gauza
erantzukizuneko lana. Beste
modu batetako proiektu batzuk
hasieratik lantzen eta eraba-
kiak hartzen ohituta nengoen.
Halan be, esan beharra dau-
kat, Gerediagako erronka berri
honetan, badagozela hainbat
proiektu, egunerokotasunean
lana eta indarra eskatzen ditue-
nenak.

Lanean hasi eta Azoka anto- latzea tokatu jatzu. Zelan doa antolaketa?

Azokaren proiektu osoa prest
dago, baina honen moduko
proiektu handi batean egune-
roko hamaika kezkarri eran-
tzun bat emon behar jago. Azo-
ka proiektu bizia da, urte oso-
ko lana eskatzen dauena.
Horrek 2010eko Azoka jada-
nik martxan daukagula esan
gura dau.

Zelako esperientzia izaten ari da?

Esperientzia aberasgarria. Alde
batetik profesionalki, ilusinoz
lan egiten dauen talde
bategaz hainbat gauza
ikasteko aukera emoten
deustalako. Bestalde,
pertsonek, pertsona
asko eta anitzak ezagu-
tzeko aukera emoten
deustan lana da.

Aurten zer nobedade azpimarratuko zeun- ke?

Aurten Azokak nobeda-
de asko izango ditu;
jadanik martxan dago-
zen sare sozialak, twi-
tteren eta facebooken;
'Ahotsenea' proiektua,
sortzaile eta publikoak
elkartzeko gunea; Azo-
ka Telebista, Azoka
gunean egongo den pantaila

erraldoi baten bitartez Azoka
jarraitzeko aukera emongo
dauena, bai zuzenean bai
ekoiztutako produktuekin...
Era berean, jadanik Azokan tra-
dizinoa daukien bestelako
proiektuetan be barrikuntzak
izango doguz; Haur Literatur
Txokoa, Aurkezpen Aretoa, eta
Lull Institutuaren laguntzagaz
bete dogun egitaraua bera.

Zer helburu daukaz Azokak aurrera begira?

Azokak euskal kulturaren erre-
ferente garrantzitsu bilaka-

tzea dau bere helburu nagusi.
Horretarako, urtero erronka
handi honi aurre egin behar
deutso.

Helburu horreek zelan bete leitekez?

Batez be, laburbilduz, gizartea
entzuz

nez eta beragaz egonez; gizar-
teak berak euskal kulturari
emoten deusazzen erronkei
erantzun bat emonez.

Krisia nabaritu dozue Azo- ka antolaterakoan?

Zorionez, Azokan parte hartzen
daben argitaletxe eta disketxe-
ek aurten be euren eskariak
bete ditue. Era berean, babes-
le eta laguntzaileen inplikazi-
oagaz ezin gara kexatu.

Gerediagak beste ekin- tza batzuk be antola- tzen ditu Azokaz apar- te. Barrikuntzarik badaukazue?

Urtero egoten dira.
Momentu bakoitze-
ko erronken arabe-
ra betidanik anto-
latutako ekintzak
hobetzen eta
barriak sor-
tzen saia-
tzen
gara.



Aitziber
Atorrasagasti •

Bilbotarra
Gerediagako kudeatzailea

ATXONDOKO XIII. NEKAZAL ETA ARTISAU PRODUKTUEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Pilota Partiduak eta Herri kirolak

2009ko Abenduaren 6an
Apatamonasterioko plazan

ANTOLATZAILEA



ATXONDOKO
UDALA